


BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ESTRATEGIA GARAPEN IRAUNKORRERAKO



PROGRAMA
Bizkaia
EGITASMOA
2011-2016

21

Garapen iraunkorrek gidatu du Bizkaiko Foru Aldundiaren jarduna azken hamarkada biotan, Rio do Janeiroko goi-bileran aldarrikatu zenetik (1992), hain zuzen ere. Orain dela gutxi eginiko Rio +20 izeneko mundu bileran argi eta garbi geratu zaigu iraunkortasunak oraindik ere bide luzea duela egiteko. Horretaz jakitun gara, bai eta beharleku horrek ekarriko digun erronkaz ere.

Nolanahi ere, ikuspegi positibo eta posibilista bati esker, iraunkortasunak Bizkaiko Foru Aldundiaren ekintzetan betetzen duen zatiak izan du, bai, islarik: batetik, toki erakundeek beren Agenda 21ekin erakutsitako babesean; bestetik, Aldundiaren beraren barruan garatu diren garrantzi handiko politika, plan eta proiektuetan. Gizarte-ongizateari eta lurralde-kalitateari buruzko adierazleen bilakaerak ere hala erakusten du.

Lan hori ez da, baina, inprobisazioaren edo egoera koiunturalen emaitza, ez. Izan ere, Gobernu Kontseiluak, 2005. urtean, jada, onetsita zuen **Bizkaia 21** programa, Bizkaiko Foru Aldundiak garapen iraunkorrerako duen estrategia, alegia, eta estrategia horrek 2010. urterako horizontea zuen. 2011. urtean, oniritzia eman zitzaion bigarren **Bizkaia 21** programari (2011-2016).

Bizkaia 21 programa berritu horrek aurrekoaren printzipio berak jarraitzen ditu (gobernantza ona, oinarrizko beharrianak betetzea, belaunaldi barruko zein belaunaldi arteko elkartasuna, etab.), baina, aldi berean, irismen handiko politika estrategikoak biltzen ditu (esaterako, Europar Batasunaren Europa 2020 estrategia), eta, Aalborg+10-eko konpromisoak oinarri hartuta, gure lurralde historikoak garapen iraunkorrerako behar dituen ildo estrategikoak, helburuak eta jarduketak biltzen ditu, kontuan hartuta, horretarako, iraunkortasunaren alderdi ambientala, ekonomikoa, kulturala eta soziala.

Argitalpen honen bidez, diseinu erakargarria erabiliz, **Bizkaia 21** programa (2011-2016) ezagutarazi nahi dugu —www.bizkaia21.net atarian ere eskuragarri dago—, eta espero dugu programa hobeto aplikatzeko baliagarria izatea eta, era berean, garapen iraunkorra sustatuko duten beste plangintza estrategiko batzuetarako inspirazio iturri ere izatea.

José Luis Bilbao Eguren
Bizkaiko Ahaldu Nagusia

© Bizkaiko Foru Aldundia
Zuzendaritza eta edizioa: Iosu Madariaga eta María Uribe (BFA)
Diseinua: Nueva Europa, S.L.
Inprimatzea: Gráficas Ulzama

ISBN: 978-84-7752-524-0
Lege-gordailua: BI-493-2013

AURKIBIDEA

1. SARRERA	6
1.1. Testuingurua	6
1.2. Bizkaia 21 Egitasmoaren (2011-2016) xedea	6
1.3. Denbora-muga.....	7
2. ERREFERENTZIA-EREMUA	8
3. BIZKAIA 21 EGITASMOA (2011-2016) EGITEKO PROZESUA	9
3.1. Metodologia	9
4. BIZKAIA 21 EGITASMOAREN (2011-2016) PRINTZIPIOAK	11
4.1. 1. PRINTZIPIOA. Ekonomi, ingurumen, gizarte eta kultur alderdiak erabakiak hartzeko moduan txertatzea.....	11
4.2. 2. PRINTZIPIOA. Belaunaldien arteko zuzentasuna	11
4.3. 3. PRINTZIPIOA. Oinarrizko beharrak betetzea, pobreziaren kontrako borroka eta belaunaldi barruko zuzentasuna sustatzea	11
4.4. 4. PRINTZIPIOA. Gobernantza ona eta partaidetza	11
4.5. 5. PRINTZIPIOA. Kultur identitatea sustatzea	11
4.6. 6. PRINTZIPIOA. Zeharkakotasuna erabakiak hartzean	11
5. AALBORG+10 KONPROMISOAK, ILDO ESTRATEGIKOAK ETA HELBURUAK	12
5.1. 1. KONPROMISOA: Gobernu moduak	12
1.1. IE. Erakundeen arteko lankidetzeta eta koordinazioa hainbat mailatan bultzatzea.....	12
1.2. IE. Zerbitzu publikoen sistema iraunkorra finkatzea	14
1.3. IE. Gobernantza hobetzea	15
5.2. 2. KONPROMISOA: Iraunkortasunerako kudeaketa	15
2.1. IE. Iraunkortasunean oinarrituriko aurrerapena garatzea	16
2.2. IE. Iraunkortasuna Bizkaiko administrazioetan txertatzea	16
2.3. IE. Iraunkortasuna Bizkako hezkuntzan txertatzea	17
2.4. IE. Iraunkortasuna gizartean oro har barneratzea	18
2.5. IE. Garapen iraunkorra errazten duen zerga-eredua sustatzea	19
5.3. 3. KONPROMISOA: Natur ondasun komunak	20
3.1. IE. Bizkaiko ingurune naturalaren ahalmena zaintzea eta hobetzea	20
3.2. IE. Bizkaiko airearen kalitatea hobetzea	23
3.3. IE. Uraren kudeaketa ona sustatzea Bizkaian	24
5.4. 4. KONPROMISOA: Kontsumo eta bizimodu arduratsuak	26
4.1. IE. Erosketa eta Kontratazio Publiko Iraunkorreko irizpideak zabaltzea eta ezartzea Bizkaiko Foru Aldundian, haren menpeko herri erakundeetan eta Bizkaiko beste Herri Administrazio batzuetan	26
4.2. IE. Obra, ondasun eta zerbitzu iraunkorren gehikuntza sustatzea merkatuan.....	27
4.3. IE. Hondakinak murriztea eta horien kudeaketa hobetzea	27
4.4. IE. Bizkaiko energi politikaren aldaketa bultzatzea	29

5.5. 5. KONPROMISOA: Hirigintza plangintza eta diseinua	30
5.1. IE. Hirigintza plangintza iraunkorra garatzea	30
5.2. IE. Eredu trinkoa eta erabilera-aniztasuna lortzeko lurralde antolamendurako jarraibideak sustatzea.....	32
5.6. 6. KONPROMISOA: Mugikortasun hobea eta trafikoa gutxitzea	33
6.1. IE. Mugikortasun iraunkorra sustatzea Bizkaian.....	33
5.7. 7. KONPROMISOA: Osasunerako tokiko ekintza	36
7.1. IE. Osasun ona sustatzea Bizkaian	36
7.2. IE. Udalerrien garapen iraunkorra sustatzea	37
7.3. IE. Zahartze aktiboa sustatzea Bizkaian	38
7.4. IE. Adinekoen bizi-kalitatea hobetzea, horien autonomia edo mendekotasun maila alde batera utzita	39
5.8. 8. KONPROMISOA: Tokiko ekonomia bizia eta iraunkorra	40
8.1. IE. Nekazaritza-abeltzaintza eta basogintza iraunkorra sustatzea Bizkaian	41
8.2. IE. Enplegu iraunkorra eta kalitatea sustatzea	42
8.3. IE. Ekonomia iraunkorrerako oinarriak ezartzea eta enpresa kudeaketa arduratsua sustatzea	42
8.4. IE. Turismo iraunkorra sustatzea Bizkaian	44
8.5. IE. Garapen iraunkorrerako berrikuntza eta ikerketa kultura sustatzea Bizkaian	45
5.9. 9. KONPROMISOA: Berdintasuna eta gizarte justizia	47
9.1. IE. Genero-berdintasuna lortzea Bizkaian	47
9.2. IE. Tokiko nortasuna eta kultura sustatzea	48
9.3. IE. Bizikidetzatza sustatzea aniztasunaren kudeaketaren bidez	49
9.4. I.E. Bidezko gizarte eredu orekatua sortzea Bizkairako	50
5.10.10. KONPROMISOA: Toki mailatik maila globalera	50
10.1. IE. Garapenerako nazioarteko lankidetzatza sustatzea	51
10.2. IE. Klima aldaketaren eraginak murriztea	52
10.3. IE. Ingurumen justizia sustatzea	52
6. JARRAIPENA ETA BERRIKUSPENA	53
7. I. ERANSKINA. ILDO ESTRATEGIKOEN, HELBURUEN ETA JARDUKETEN LABURPEN-TAULA	55

BIZKAIA 21 EGITASMOA: BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN ESTRATEGIA GARAPEN IRAUNKORRERAKO (2011-2016)

- Bizkaiko Aldizkari Ofizialeko 121. zenbakian publikatutako onarpena. 2011ko ekainak 24, ostirala.
- Bizkaiko Aldizkari Ofizialeko 130. zenbakian publikatutako gaurkotzearen onarpena. 2012ko uztailak 6, ostirala.



1. SARRERA

1.1. TESTUINGURUA

Bizkaiko Foru Aldundiaren Gobernu Kontseiluak, 2005eko azaroaren 22an eginiko bilkuran, Bizkaia 21 Egitasmoa onetsi zuen, hain zuzen 2010era artekoa.

Foru erakundeak gogoeta eta lanerako proposamen hori egin zuen iraunkortasunerantz egitearen aldeko mugimenduei erantzuna emateko, gehienbat Europakoei. Egitasmo haren hitzaurrean, zehazki azaltzen ziren haren genesia eta frogapena, eta oinarri nagusia Garapen Iraunkorrerako Europako Estrategia zen.

Egitasmoaren edizio berrituan, edukiak egungo garaietara egokitu behar izan dira, geroko gure belaunaldiei utzi behar diegun etorkizuna ahaztu barik, betiere gure Lurraldeari eragiten dioten Europako politiken eremuaren barruan.

Garapen Iraunkorrerako Europako Estrategiak¹ hauxe zioen 2001ean: “*Garapen iraunkorrek sektore guztien eta politika guztien ardatz nagusia bihurtu beharko luke*”. Europako Batzordeak Europako Estrategia 2020 delakoan² dioenez, egungo krisialdi ekonomikoak ekonomi eta gizarte aurrerapeneko urteak ezabatu ditu, eta Europako ekonomiarren ahuleziak utzi ditu agerian. Azken Estrategia hori EB *ekonomia adimenduna, iraunkorra eta integratzailea bihurtzearen alde agertzen da, enplegu, produktibitate eta gizarte kohesio maila handiak izango dituen*.

Geroago, *hazkunde iraunkorrerako eskualde politikak Europa 2020 eremuan*³ eginiko ekarpena delakoak gogorarazi egiten digu kohesio politikak Estrategia bultzatu behar duela, zertarako-eta EBk garapen iraunkorraren eta enplegua sortzearen bidean aurrera egiteko, eta bi gako dituen planteamendua proposatzen du:

- Alde batetik, *inbertsio **gehiago** garapen iraunkorrean: garapen iraunkorreko inbertsioen garrantzi estrategikoa sustatzea, baliabideak eraginkortasunez eta karbono emisio txikiekin darabiltzan ekonomia azpimarratuta.*
- Eta bestetik, *inbertsio **gehiago** hazkunde iraunkorrean: Politikak betearazteko mekanismoak hobetzea, garapen iraunkorraren printzipioak eragiketa-egitasmoetan aplikatzea indartuz.*

Horrez guztiaz gain, gure Lurraldeak kultur berezitasunak dituela esan behar dugu, zaindu eta indartu beharrekoak, egungo gizarte errealitatearekin bat eginda erabat.

Hortaz, Foru Erakunde honen ekarpenak, hazkunde adimenduna, iraunkorra eta integratzailea bere gain hartzeaz batera, kultur ondarea zaindu behar du. Hauxe da nahia eta helburua: Inguruabar berezi horietan lan egitea, gure Lurraldea eta herritarrak haz daitezen denboraren poderioz iraunkorragoak izatea ahalbidetuko digun bidean.

1.2. BIZKAIA 21 EGITASMOAREN XEDEA (2011-2016)

Egitasmo honen xedea, orain ere, foru sailei dagozkien jarduketetan iraunkortasun-irizpideak txertatzen laguntzea da, Lurraldea eta herritarrak iraunkortasunaren bidetik joan daitezen.

Lehen egitasmoan ezarritako helburuak oraingo honetan ere baliozkoak dira:

- Kide anitzeko gogoetarako lagungarria den elementua ezartzea, foruaren jardunari eta garapen iraunkorrari buruzkoa.
- Iraunkortasun-printzipioak Foru Erakundearen sartzeko, ildo estrategikoak finkatzea.
- Iraunkortasun helburu espezifikoak zehaztea foru sail guztientzat, kudeaketa-adierazleekin batera, hartutako konpromisoen jarraipena egitea ahalbidetuko dutenak, hain zuzen ere.
- Arlo anitzeko jarduketa sustatzea, Lurraldearen eta herritarren garapen iraunkorrean oihartzun handia duten eremuen koordinaziora bideratua.
- Parte hartzeko kultura bultzatzea foru administrazioaren barruan antolakuntza sistema baten bidez; sektoreko politiken iraunkortasuna printzipioak bere gain hartzeko moduko sistema izango da.

Aurreko Egitasmoan adierazi zenez, urrats garrantzitsua zen Bizkaiko garapen-eredua bideratzeko, baina ez zen behin betikoa. Halaber, garapen iraunkorrerako bidea prozesua dela erantsi zuen eta, beraz, Bizkaia 21 Egitasmoak (2011-2016) nahikoa malgua izan beharko luke, inguruabar aldakorretara egokitzeko moduko malgua.

¹ Europako Kontseiluak Gotenburgoko Goi-bileran onetsia, 2001eko ekainaren 15ean eta 16an, Batzordeak proposatuta [COM (2001) 264].

² COM (2010) 2020.

³ COM (2011) 17 azkena.

Eta inguruabarrak nabarmen aldatu dira. Baina elkarte, eragile eta erakunde askok, une berezi hauetan, garai batean hasitako bidea dela egokia aldeztu dute, hots, iraunkortasunaren bidea politika guztietan. Hori dela-eta, lehen egitasmoan agerrarazitako **Printzipioek** eta **Konpromisoek** are zentzu handiagoa dute orain, eta aurrerantzean ere erreferentzia izan behar dute, denboran nekez aldatzen diren erreferenteak.

Ildo estrategikoak, helburuak eta **jarduketa** egokiak, izan ere, aurrean dugun berehalako egungo garaiari egokitu zaizkio.

1.3. DENBORA-MUGA

Egitasmo honetan proposaturiko denbora-mugak 2011-2016 epealdia hartzen du.

Azalduko Egitasmoaren hasierako gogoeta metodologikoak berriz ere azpimarratu ditu Lurraldea bera eta herritarrak. Nahiz eta arazoek eta konponbideek gero eta presentzia handiagoa duten gure gizartearen maila guztietan, ez da ahaztu Bizkaiko Foru Aldundiak hainbat eskumen dituela, dagoeneko ezaguna den administrazio antolakuntzan oinarritua.

Berriz ere esaten da garapen iraunkorraren kontzeptua Administrazioaren jarduketa-eremu guztietan txertatu beharra dagoela eta, beraz, Bizkaia 21 Egitasmo berriak (2011-2016) Bizkaiko Foru Aldundiaren sail eta egitura guztiak ukitzen ditu. EAEko gainerako **Herri Administrazioekiko** beharrezko koordinazioa azpimarratzearekin batera, eta bereziki udal administrazioarekiko, herritarrengandik hurbilen dagoen entitatea baita.

Aurrekoan bezala, egungo Egitasmoaren egitura Aalborg+10 konpromisoen ingurukoa da, foru sail guztien jarduna izanda lortu beharko diren **34 Ildo Estrategiko** eta **93 Helburu** eta **332 Jarduketa** proposatuz.

Hala, politikek Bizkaiko Lurralde Historikorako eta hura osatzen duten udalerrietarako hazkunde iraunkorreko ereduaren alde duten konpromisoa bideratzen duten ekintzak bildu dira dokumentuan.


Hortaz, eta ikus daitekeenez, zeharkako estrategia da erabat, Bizkaiko Lurralde Historiko osoa ukitzen duena eta hari eragiten dioten politika guztien parte-hartzea

dakarrena. Edo bestela esanda, estrategiaren garapenaren administrazio ikuspegiaren funtsa ez da soilik Bizkaiko Foru Aldundia bera, gainerako administrazioak baizik eta, bereziki, Bizkaiko udalak.

Azkenik, Bizkaia 21 Egitasmo honen koordinazioa Bizkaiko Foru Aldundiaren Ingurumen Sailaren pentzura izango dela esan behar da.

Erakunde horren helburuen artean, Bizkaiko Lurraldeko garapen iraunkorreko politiken jarraipenari eta ebaluazioari buruzkoa dago, betiere foru sailek eta horiekin lotutako enpresa publikoek esleituta dituzten eskumenei kalterik egin gabe.

Hortaz, egiteko nagusietako bat Bizkaia 21 Egitasmoa bera ebaluatzea, jarraipena egitea eta berrikuspina proposatzea izango da, gure Lurraldearen iraunkortasunerako ekintzan aurrera egiteko berme gisa.



2. ERREFERENTZIA-EREMUA

Bizkaiko Foru Aldundiak, azken legegintzaldietan, garapen iraunkorraren arloa landu izan du, ez bakarrik gomendioei, zuzentarauei eta hainbat eremutako legeriei erantzuna emateko, baizik eta uste sendoa dugulako horretan, zenbait kasutan horiek guztien aurretikoa.

Uste sendo hori dokumentu hau idaztearekin batera hasi zen gauzatzen: "*Bizkaiko Foru Aldundia eta Agenda 21en aplikazioa*", 1998koa, edo hilabete batzuk geroago, 1999ko otsailean, gizakiak ingurumenerako duen eskubideari buruz Bizkaiak eginiko Adierazpena aldarrikatuta.

Ondoren, Bizkaia 21 Egitasmoari (2005-2010) buruzko ekimenak garatu dira, edo Iraunkortasunaren Hezkuntzarako Ekintza Egitasmoari buruzkoak (PAES, 2007), edo Hiri eta Herri Iraunkorren Europako IV. Konferentzian izenpeturiko konpromisoa. Konferentzia hori Aalborg-en egin zen 2004ko ekainean, non Europako tokiko gobernuek, horien artean Bizkaiko Foru Aldundiak, egun Aalborg+10 Konpromisoak deritzegunak hartu zituzten beren gain.

Horrek guztia, esana dugunez, lege-eremuen edo erreferentzia-eremuen barruan eboluzionatu du; izan ere, eremu horiek Europako eta euskal gizartean izan dira azken bi hamarkadetan.

Horrexegatik, Bizkaia 21 Egitasmo berritua (2011-2016) Europar Batasunaren korrante nagusiak kontuan izanik idatzi da. 2001eko ekaineko Garapen Iraunkorrerako Europako Estrategiatik eta 2005eko berrikuspenetik hasita, 2007 eta 2009ko ebaluazio bikoitzetara.

2005ean, esana dugunez, Estrategia berrikusi zen **funtsezko zazpi erronketara** bideratzeko. Erronka horiek landu behar dira, baldin eta Europak garapen iraunkorraren bidetik jarraitu nahi badu eta oparotasun eta ongizate maileri eutsi nahi badie. Hona hemen erronkok:

- **Klima aldaketaren** eta horren ondorioen kontra borrokatzea.
- **Garraioen** ondorio txarrak mugatzea eta eskualdeen arteko desorekak geldiaraztea.
- **Ekoizpen- eta kontsumo-bide** iraunkorrak sustatzea.
- **Baliabide naturalen kudeaketa iraunkorra** egitea.
- **Herri osasunerako** arriskuak mugatzea.

- **Gizarte bazterkeriaren eta pobrezia**ren kontra egitea eta **zahartze demografikoaren** ondorioei aurre egitea.

- **Munduko pobrezia**ren kontrako borroka indartzea eta **munduko garapen iraunkorra** zaintzea, baita nazioarteko konpromisoak errespetatzea ere.

Erronka horiez gain, sektore arteko hiru neurri hauek izan behar dira kontuan:

- **Jakintza**ren **gizarteak** garapen iraunkorra bultzatu behar du.

- **Finantza eta ekonomi tresnak** kutsadura gutxiago sortzen duten produktuak eta zerbitzuak dituen merkatua sortzeko eta kontsumitzaileen jokabidea aldatzeko baliabidea ere badira.

- **Komunikazio hobeari** esker, herritarren eta enpresen konpromisoa susta daiteke.

2007ko urrian, funtsezko zazpi erronken ebaluazioa egin zen, zeren eta tokian bertan lorturiko emaitzak oso onak izan ez direla ikusi baita, eta azkenik, 2009an, funtsezko gako horien ebaluazioa egin zen Europako politiken baitan.

Gainera, Europa Estrategia 2020 izan da aintzat; izan ere, gure kontinenteak hiru lehentasun hauek izan beharko lituzkeela nabarmentzen da:

- **Hazkunde adimenduna:** jakintza eta berrikuntza oinarrituriko ekonomia garatzea.

- **Hazkunde iraunkorra:** baliabideak eraginkorrako erabiliko dituen ekonomia sustatzea; ekonomia berdea eta lehiakorragoa.

- **Hazkunde integratzailea:** enplegu maila altuko ekonomia sustatzea, ekonomia, gizarte eta lurralde kohesioa bultzatuko dituen.

Horien seinale guztien multzoa da erreferentzia-eremua. Gure jarduketaren eremua Bizkaia eta bizkaitarrak dira, betiere beste herri eta lurraldeekiko elkartasuna ahaztu barik, eta Bizkaia 21 Egitasmoa (2011-2016), berriz, gure tresna.

3. BIZKAIA 21 EGITASMOA (2011-2016) EGITEKO PROZESUA

Bizkaia 21 Egitasmoa (2011-2016), aurrekoa bezala, diseinu eta egituraketa lan zehaztuaren bidez egin da, Bizkaiko Foru Aldundiaren Ingurumen Saila zuzendari duelarik. Alabaina, iraunkortasunak ez du soilik ingurumen aldagaia ukitzen; zeharkako elementua da. Ildo horretan, Aldundiak foru erakundearen sail guzti-guztien partaidetza bultzatu du, ondoren zehaztuko den metodologiaren bidez.

3.1. METODOLOGIA

Bizkaia 21 Egitasmoa egiteko (2011-2016), 5 fase garatu behar izan dira. Ondoren azalduko dira faseak.

Lehenik eta behin, eztabaida-taldeak osatuko dituzten **pertsonak izendatzeari (1. fasea)** ekin zitzaion, eta pertsona horiek Bizkaia 21 Egitasmo (2011-2016) honen oinarriak ezarri zituzten. Foru erakundeak iraunkortasun eragile izendatu ditu parte hartu duten pertsonak, baita Aldundiko profil teknikoko beste pertsona batzuk (barne eragileak deritzenak) eta Foru Aldundiak identifikaturiko kanpoko eragileak ere.


Partaideak izendatu ondoren, parte hartzeko lehen tailerra egin zen, **AMSA Tailerra (2. fasea)**, eta horren helburua Bizkaiko iraunkortasunaren funtsezko eremuen egungo egoera ezagutzea zen eta, iraunkortasunaren arloko funtsezko eragileekin batera, adostasuna lortzea (Bizkaiko Foru Aldundiaren jarduketa-eremuaren barruan), halako moldez non abiapuntua izango baitzen erronka berriak eta estrategiak planteatzeko foru erakundeak arlo horretan hartutako konpromisoak betetzeko bidean aurrera egite aldera.

Bizkaiko egungo egoera aztertutakoan, Bizkaian Aalborg+10 Konpromisoen garapenari buruzko etorkizuneko ikuspegia zehaztu zen, **Etorkizuneko Ikuspegiko Tailerra (3. fasea)** deritzona. Fase horretan, lortu nahi den etorkizun partekaturako agertokia lortu zen (ikuspegi positiboa, Bizkaiko Foru Aldundiak bere eskumenen eremuan indartu beharko lukeena), baita prebenitu beharreko etorkizuneko agertokia ere (ikuspegi negatiboa, foru erakundeak arlo horietan dituen eskumenen bidez ekidin beharrekoa).

Aurreko faseetan lorturiko emaitzak abiapuntu hartuta, ezinbestekoa zen landu beharreko lan-ildo nagusiak eta lortu beharreko helburuak ezartzea. Zehazkiago, Bizkaia 21 Egitasmo hau (2011-2016) zehaztuko duten **Helburuak eta Ildo Estrategikoak (4. fasea)** partaidetzaren bidez

zehazteko **Tailer** bat burutu zen, hain zuzen aurreko fasean lorturiko etorkizuneko ikuspegia lortzeko bideratuta. Halaber, Ildoak eta Helburuak zehazteko, Bizkaia 21 Egitasmoarekiko (2011-2016) sinergiak dituzten barneko eta kanpoko beste egitasmo batzuk hartu ditu Aldundiak, baita iraunkortasunaren arloan garatzen ari diren estatu, Europa eta nazioarte mailako gomendioak eta joerak ere.

Azkenik, zehazturiko helburu bakoitzerako, sail bakoitzak **hainbat jarduketa ezarri du (5. fasea)**, helburuak betetzen direla bermatzeko garatu beharrekoak. Azkenik, parte hartuta zehaztu dira Bizkaiko Foru Aldundiko sailek aurreko fasean proposaturiko **Helburuak** lortzeko zehazturiko **Ildo Estrategiko** bakoitzaren barruan garatu beharreko **Jarduketak**.



1. Irudia. Bizkaia 21 Egitasmoa (2011-2016) egiteko metodologia.



4. BIZKAIA 21 EGITASMOAREN (2011-2016) PRINTZIPIOAK

Bizkaia 21 Egitasmoan (2005-2010) sei printzipio azaltzen ziren, Bizkaiko Foru Aldundiak iraunkortasunaren ikuspegitik garatuko zituen jarduketaren guztien orientazio orokor gisa.

Printzipio horiek, gaur egun, erabateko indarraldia dute, are gehiago gure egungo gizartearen eboluzioak garrantzitsuak diren ikuspegitik. Hortaz, funtsezkoa da Bizkaia 21 Egitasmoaren (2011-2016) ondoriozko jarduketetan parte hartzen duten pertsona guztiek printzipiook aintzat hartzea.

Horrexegatik mantendu dira oso-osorik enuntziatuak eta edukiak, gure gizartearen eta gure Lurralde Historikoaren iraunkortasunerako bidea egitea errazagoa izango den ustearekin.

4.1. 1. PRINTZIPIOA.

Ekonomi, ingurumen, gizarte eta kultur alderdiak erabakiak hartzeko moduan txertatzea

Aintzat harturiko alderdi bakoitzean onura orekatuak dakartzaten konponbideak sortzean eta erabakiak hartzean datza iraunkortasun mailako jarduketaren oinarria.

4.2. 2. PRINTZIPIOA.

Belaunaldien arteko zuzentasuna

Ezein neuririk ez da hartu behar hurrengo belaunaldien beharrak aintzat hartu barik. Hortaz, plangintza egiterakoan, gaurtik, gaurko eta biharko egin behar dugu, erabaki askoren ondorioak itzulezinak izan daitezkeela kontuan izanda.

4.3. 3. PRINTZIPIOA.

Oinarrizko beharrak betetzea, pobreziaren kontrako borroka eta belaunaldi barruko zuzentasuna sustatzea

Sorturiko eta garaturiko jarduketaren guztiak eremu guztietako oinarrizko beharrak (enplegua, hezkuntza, etxebizitza, osasuna, gizarte laguntza...) betetzeko ikuspegitik egin behar dira, eta herritar guztien zuzentasuna sustatu, jatorri, ezintasun, genero, adin, erlijio eta abarren ziozko diskriminaziorik izan barik.

4.4. 4. PRINTZIPIOA.

Gobernantza ona eta partaidetza

Herritarren parte-hartzera irekita egon behar du erabakiak hartzeko prozesuak, sortze beretik; hori lagungarria izango da erabakien behar bezalako gardentasuna, administrazio honekiko konfiantza handiagoa eta baterako erantzukizun handiagoa izateko.

4.5. 5. PRINTZIPIOA.

Kultur identitatea sustatzea

Bizkaiko Lurralde Historikoaren idiosinkrasia eta kultur elementuak indartu behar dira berez balio dutela aintzat hartuta; kezka nagusietako bat izan behar du, eta ez da ekonomia kulturaren kaltetan lehenetsi behar.

4.6. 6. PRINTZIPIOA.

Zeharkakotasuna erabakiak hartzean

Hainbat sailek eragina izan dezaketean arloak lantzeko ohiko lan modua izan behar du administrazio koordinazioak, betiere ondorio sinergikoak bilatuz eta sail baten jarduketak beste baten kalterako izatea saihestuz. Era berean, Herri Administrazioen arteko koordinazioa sustatuko da.



5. AALBORG+10 KONPROMISOAK, ILDO ESTRATEGIKOAK ETA HELBURUAK

Bizkaia 21 Egitasmoa beraren (2011-2016) garapenari dagokio atal hau, eta eduki guztia Aalborg+10 Konpromiso bakoitza oinarri hartuta taldekatu da, azterketa ordenan egitea errazteko.

Ildo horretan, Aalborg+10 Konpromiso bakoitza **Ildo Estrategikotan** banakatu da, hots, jarraitu beharreko jarraibideetan edo jokabideetan. Halaber, horietako bakoitzak bere helburuak ditu, eta horien barruan, **Helburuak** lortzeko egin beharreko **Jarduketak**.

Aldi berean, fitxa labur bat sortu da, ezarritako helburu bakoitzarekin lotutako informazio guztia argi biltzeko xedeaz. Hala, helburu bakoitzerako, hauexek bildu dira: helburua sartzen deneko **Ildo Estrategikoa**, betetzeko epea, hura lortzeko Zuzendaritza arduraduna, Zuzendaritza laguntzaileak (beharrezkoa balitz) eta aurreikusitako helburua betetzen dela ebaluatzeko kontuan hartu beharreko **Adierazleak**.

I. eranskinak Ildo Estrategikoen, Helburuen eta Jarduketan laburpen-taula dakar.

5.1. 1. KONPROMISOA. Gobernu moduak

Erabakiak hartzeko gure prozedurak demokrazia parte-hartzaile handiagoaren bidez bultzatzea hitzartu dugu

Bizkaiko Foru Aldundiak ezinbestekotzat jotzen du **erakundeen arteko lankidetzaren eta koordinazioaren** garatzea hainbat mailatan eta hainbat sailen artean. Ildo horretan, beharrezkotzat jotzen da sailen arteko koordinazioarako politikak bultzatzea foru erakundeetan bertan. Halaber, zeharkakotasuna oinarritzko antolakuntza-elementu gisa sartu behar dela irizten zaio, foru politiken indarra eta koherentzia hobetzeko. Hala ere, foru erakundeak uste du urrats bat gehiago egin behar dela eta Bizkaia, lurralde gisa, ukitzen duen erakunde arteko koordinazioa hobetu, maila edozein dela ere.

Bestalde, Bizkaian dauden zerbitzu publikoen egungo sistema (ur-hornidura eta saneamendua, hiriko hondakinen bilketa, etab.) ona izan arren, hobetu liteke. Ildo horretan, eta **zerbitzu publikoen sistema iraunkorra finkatzeko**

asmoz, egungo zerbitzuen eta baliabideen zati bat koordinatu, mankomunatu edo partzuergoan sartzeko prozesua sustatu nahi du Aldundiak. Aldi berean, herritarren arreta hobetuko da prestazio eta zerbitzuen sistema eraginkorraren bidez, herritarren desberdintasunak galarazteko eta sistema eskuragarria eta ulergarria izateko herritar guztientzat.

Azkenik, **gobernantza hobetzeko**, Bizkaiko lurraldeak erakundeek ez diren ekarpenen aldeko apustu tinkoari eustea nahi da. Hartara, herritarrek eta gizarte eta ekonomi erakundeek erabakiak hartzeko prozesuetan duten partaidetza erraztuko da eta foru jardueraren gardentasuna indartu.

1 KONPROMISOA. GOBERNU MODUAK			
1.1. ILDO ESTRATEGIKOA Erakundeen arteko lankidetzaren eta koordinazioaren hainbat mailatan bultzatzea			
1.1.1. HELBURUA. Koordinazio politikak bultzatzea Bizkaiko Foru Aldundiko sailen artean.			
JARDUKETAK			
<ul style="list-style-type: none"> • Iraunkortasun eragilea aintzatestea, haren eginkizuna onartuz eta kontzeptu hori barnean eta kanpoan hedatuz. • Iraunkortasun eragileen bilera-programa bat onestea eta burutzea. • Iraunkortasun eragileen foro birtuala sortzea Bizkaia 21 atarian, informazio, trebakuntza eta komunikazio gunea izango dena. • Bizkaia 21 Egitasmoa (2011-2016) jarraitzeko eta ebaluatzeko egitasmoa egitea eta onestea. 			
Lehentasuna	Handia	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusia Ingurumen Zuzendaritza Nagusia		
Kolaborazioa	Foru Zuzendaritza guztiak		
Adierazlea	Iraunkortasun eragileek eginiko bileren kopurua		



1.1. ILDO ESTRATEGIKOA			
<p>1.1.2. HELBURUA. Zeharkakotasuna txertatzea foru politiken iraunkortasuna eta koherentzia hobetuko dituen antolakuntzako elementu gisa.</p>			
<p>JARDUKETAK</p>			
<ul style="list-style-type: none"> • Foru Politikak Koordinatzeko Batzordearen sorrera bultzatzea. • Zeharkakotasunerako tresnen eta metodologiaren arloko aholkuak ematea Aldundiko langileei politikak zehazterakoan. • Sailen arteko jardunaldiak eta lan-taldeak egitea erlazio naturiko programak eta ekintzak koordinatzeko. • Onetsi eta abiaraztea zeharkako jarduerak gazteen arloan Gaztedi-Bizkaia Proiektuan 2011-2015. • Gaztedi Foru Batzordeak gazteria arloan foru jarduketaren programazioa eta ebaluazioa egitea eta onestea, Gaztedi-Bizkaia Proiektuaren 2011-2015 baitan. 			
Lehetasuna	Handia	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusia Ingurumen Zuzendaritza Nagusia Kirolen eta Gazteriaren Zuzendaritza Nagusia		
Kolaborazioa	Foru Zuzendaritza guztiak		
Adierazlea	Foru Politikak Koordinatzeko Batzordearen bilera kopurua Sailen arteko lan-taldeen eta jardunaldien kopurua Adierazlea: Gazteria arloan zeharkako jardueren kopurua Adierazlea: Gaztedi Foru Batzordeak egindako batzarren kopurua		

1.1. ILDO ESTRATEGIKOA			
<p>1.1.3. HELBURUA. Bizkaiko Lurralde Historikoaren beraren barruko erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetzak hobetzea, baita Bizkaitik kanpoko Administrazio eta erakundeekikoa ere.</p>			
<p>JARDUKETAK</p>			
<ul style="list-style-type: none"> • Foru partaidetza bultzatzea administrazioetako Gobernu Organoetan (Eusko Jaurlaritza, EUDEL, URA, Emakunde, Bizkaiko Garraio Partzuergoa, Ur Partzuergoak, etab.). • Topaketak sustatzea EUDELekin, aplikazio arloen arabera. • Udalerriehi aholkuak ematea eta udalerrien itunak koordinatzea foru sail bakoitzaren eremuan. • Tresna eta aplikazio informatiko komunak edo bateragarriak erabilera sustatzea hainbat erakundek parte hartzen duten programetarako. • Eskuliburuak, gidak edota legeria egitea eta argitaratzea administrazioen jarduketak-prozedurak normalizatzeko. 			
Lehetasuna	Ertaina	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Foru Zuzendaritza guztiak		
Adierazlea	Tresna eta aplikazio informatiko komunak edo bateragarriak erabilera sustatzea hainbat erakundek parte hartzen duten programetarako. Prozedurak normalizatzeko argitalpenen kopurua		

1.2. ILDO ESTRATEGIKOA Zerbitzu publikoen sistema iraunkorra finkatzea			
<p>1.2.1. HELBURUA. Zerbitzu publiko eta baliabide batzuk koordinatu, mankomunatu edo partzuergoan sartzeko prozesua sustatzea, sistema iraunkorra bultzatuz.</p>			
JARDUKETAK			
<ul style="list-style-type: none"> Zerbitzu mankomunatuaren prestazioa sustatzea eta aholkuak ematea gizarte, kultura, ekonomia, turismo, gazteria, etab. eremuetan. Udalerri guztiak Bilbao-Bizkaia Partzuergoan sartzeko sustatzea. Lurralde mailako Hiriko Hondakinaren Partzuergoa sortzea sustatzea. Mankomunitateen sorrera sustatzea hiriko hondakinak biltzeko. 			
Lehentasuna	Handia	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Udal Harremanenentarako eta Hirigintzarako Zuzendaritza Nagusia Ingurumen Azpiegituren Zuzendaritza Nagusia Ingurumen Zuzendaritza Nagusia Kirolen eta Gazteriaren Zuzendaritza Nagusia		
Kolaborazioa	Foru Zuzendaritza guztiak		
Adierazlea	Zerbitzu mankomunatuaren kop. Bilbo-Bizkaia Ur Partzuergoan elkarturiko udalerrien kop. Hondakinak partzuergoan bilduta kudeatzen dituzten udalerrien kop. "Udal Gaztedi", Bizkaiko Lurralde Historikoaren tokiko esparruko gazteria politika integralen koordinazio organora atxekituriko udalerrien kopurua		

1.2. ILDO ESTRATEGIKOA.			
<p>1.2.2. HELBURUA. Herritarren arreta hobetzea prestazio eta zerbitzuen sistema batekin, desberdintasunak saihesteko eta beti erabiltzaileari bideraturiko sistema eraginkor, irisgarri eta ulergarri batekin. Zuzentasuna eta iraunkortasuna.</p>			
JARDUKETAK			
<ul style="list-style-type: none"> Web zerbitzuen garapeneraren aldeko apustua egitea administrazio kudeaketetarako. Herritarrentzako Ingurumen Informazio Sistema hobetzea. 			
Lehentasuna	Handia	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Administrazioaren, Zerbitzuen eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusia		
Kolaborazioa	Foru Zuzendaritza guztiak		
Adierazlea	Administrazio elektronikoen bidez eskuragarri dauden zerbitzuen kop. Administrazio elektronikoen bidezko erabiltzaileen kop. Ingurumen Informazio Sistemaren erabiltzaileen kop. Ingurumen Informazio Sistemaren erabiltzaileen gogobetetasun maila		



1.3. ILDO ESTRATEGIKOA Gobernantza hobetzea			
<p>1.3.1. HELBURUA. Herritarrek eta gizarte eta ekonomi erakundeek erabakiak hartzeko prozesuan duten parte-hartze aktiboa erraztea.</p>			
JARDUKETAK			
<ul style="list-style-type: none"> Herritarrek erabakiak hartzeko prozesuan parte hartzeko eredia zehaztea. Herritarrek BFaren politikan parte hartzeko bideak sortzea, jendaurreko informaziotik harago (mahai sektorialak, Gaztedi Foroa, etab.). 			
Lehentasuna	Ertaina	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Foru Zuzendaritza guztiak		
Adierazlea	Herritarrek parte hartzeko abiarazitako bideen kopurua		
<p>1.3.2. HELBURUA. Herri Administrazioen kudeaketaren gardentasuna indartzea.</p>			
JARDUKETAK			
<ul style="list-style-type: none"> Informaziorako bide publikoak sortzea (web orria, Gaztebizz ataria, etab.) Administrazioak. 			
Lehentasuna	Handia	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Foru Zuzendaritza guztiak		
Adierazlea	Abiarazitako informazio bide publikoen kop. Enpresentzako dibulgazio jarduketaren kop.		

5.2. 2. KONPROMISOA.

Iraunkortasunerako kudeaketa

Kudeaketa egitasmo eraginkorrek egitea hitzartu dugu: diseinua, abiaraztea eta ebaluazioa

Bizkaiko Foru Aldundiaren premisen artean, **Bizkaiaren aurrerapenaren** alde lan egitea dago, **iraunkortasunean oinarrituriko lurraldea den aldetik**. Asmo horrekin, hazkunde ekonomikoa eta ingurumeneko nahiz gizarteko kanpoko kostuak banantzeko ahaleginak egin nahi ditu.

Ilido beretik, **iraunkortasuna eta horren irizpideak Bizkaiko Administrazioetan txertatzearen** garrantzia azpimarratzen du, eta horretarako, hainbat bide abiaraziko ditu, hala nola, arlo horretan eginiko ibilbidea gainbegiratzeko eta ebaluatzeko iraunkortasun-adierazleen erabilera, udalerriei laguntzea Tokiko Agenda 21en Tokiko Ekintza Planak kudeatzeko edo Bizkaian dauden administrazioak bultzatzea Europako Hiri Iraunkorren Kanpainarekin bat egin dezaten.

Era berean, foru erakundeak beste nitxo batean ere funtsezkotzat jotzen du iraunkortasunaren kontzeptua sartzea: hezkuntzaren sektorean. Hori dela-eta, hainbat jarduketa bideratu dira, **iraunkortasuna hezkuntzaren sektorean txertatzeko** asmoz, Eskolako Agenda 21 eta sektore horretako iraunkortasunaren arloko esperientzien trukaketa bultzatuz eta foru erakundearen Iraunkortasunean Oinarritutako Hezkuntzarako Ekintza Egitasmoa (PAES) eguneratzea, zabalkundea eta aplikazioa sustatuz.

Aldi berean, ezinbestekotzat jotzen da **oro har gizarteak iraunkortasuna barneratzea**. Horrexegatik, herritarrak garapen iraunkorrean parte hartzearen garrantziaz jabeazteko eta orain eta geroan lurraldean egingo diren iraunkortasun prozesuei buruzko informazioa ezagutarazteko jarduketak ere biltzen ditu Egitasmoak.

Bizkaia iraunkortasunaren bidea kudeatzeko jarduketak bukatzeko, **Ingurumen Zerga Erreformari buruzko lan-eremuaren sorrera bultzatu** nahi da hiru foru aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren artean, eta interesa duten alde guztiei erreformaren onurak ezagutaraziko zaizkie. Halaber, zerga iruzurra murrizteko jarduketa egokiak egingo dira, zertarako-eta zergen kargan banaketan ekitate eta gizarte justizia handiagoak lortzeko.

2. KONPROMISOA. IRAUNKORTASUNERAKO KUDEAKETA			
2.1. ILDO ESTRATEGIKOA Iraunkortasunean oinarrituriko aurrerapena garatzea			
2.1.1. HELBURUA. Hazkunde ekonomikoa eta ingurumeneko eta gizarte kanpoko kostuak banantzea.			
JARDUKETAK			
<ul style="list-style-type: none"> Bizkaiko Batzar Nagusiek eta Bizkaiko Foru Aldundiak Europako eta nazioarteko ekimenekin gehiago bat egitea, iraunkortasun politikak finkatzea ahalbidetzeko. Bizkaia 21 Egitasmoari, Tokiko Agenda 21i eta Aalborg+10 Konpromisoari buruzko trebakuntza kanpainak egitea, foru administrazioetako langileentzat nahiz udal eta udalaz gaindiko entitateetako langileentzat. Iraunkortasun kontzeptua Bizkaiko enpresa sarean ezagutaraztea. Gizarte kohesioan oinarrituriko hazkunde ekonomikoa zabaltzea eta finkatzea eta ingurumena foru sail guztien artean koordinatuta babestea. 			
Lehentasuna	Handia	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Enpresak eta Berrikuntza Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia Ingurumen Zuzendaritza Nagusia Administrazioaren, Zerbitzuen eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusia		
Kolaborazioa	Foru Zuzendaritza guztiak		
Adierazlea	Europako eta nazioarteko ekimenekin bat egin diren programen kop. B21E, Tokiko Agenda 21 eta Aalborg+10 konpromisoari buruz BFAko pertsonalari, udal erakundeei eta beste erakunde batzuei emandako trebakuntza kanpainen kop.		

2.2. ILDO ESTRATEGIKOA Iraunkortasuna Bizkaiko Lurralde Historikoko Administrazioetan txertatzea			
2.2.1. HELBURUA. Iraunkortasun-adierazleak erabiltzea iraunkortasunerako bidea ikuskatzeko eta ebaluatzeko.			
JARDUKETAK			
<ul style="list-style-type: none"> Bizkaiko Iraunkortasun-adierazleen Sistema mantentzea eta eguneratzea. Urtero kalkulatzea Bizkaiko Giza Garapenaren Indizea eta horren bilakaera aztertzea. Bizkaiko iraunkortasun-adierazleen, aztarna ekologikoaren eta Giza Garapenaren Indizearen emaitzak Bizkaiko Administrazioetan ezagutaraztea. Foru planek eta egitasmoek Aalborg+10 Konpromisoak betetzeko eginiko ekarpena ebaluatzea. 			
Lehentasuna	Ertaina	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Ingurumen Zuzendaritza Nagusia		
Kolaborazioa	Foru Zuzendaritza guztiak Eusko Jaurlaritza Udalak		
Adierazlea	Eguneraturiko adierazleen egituren kopurua		
2.2.2. HELBURUA. Udalerrien Tokiko Agenda 21en Tokiko Ekintza Planak kudeatzen laguntzea orientazioaren eta laguntzaren bidez.			
JARDUKETAK			
<ul style="list-style-type: none"> Iraunkortasunaren araberako udal proiektuak finantzatzea. Iraunkortasun-irizpideak sortzea diru-laguntzen emakidetan baloratuak izan daitezen. 			
Lehentasuna	Handia	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Diru-laguntzen programak garatzen dituzten foru zuzendaritza guztiak		
Kolaborazioa	Udalak		

2.2. ILDO ESTRATEGIKOA			
Adierazlea	Iraunkortasunaren araberako udal proiektuak finantzatzeko urteko foru aurrekontua (€/urtea) Iraunkortasun-irizpideak sartu direneko diru-laguntzen programen kop.		
2.2.3. HELBURUA. Administrazioek Europako Hiri eta Herri Iraunkorren Kanpainarekin bat egitea sustatzea.			
JARDUKETAK			
<ul style="list-style-type: none"> Bizkaiko udalerriek Europako ekimen eta proiektuetan bat egitea sustatzea, politika iraunkorrak sartze aldera. Bizkaiko Foru Aldundiak Europako Hiri eta Herri Iraunkorren Kanpainaren ekimenetan eta proiektuetan parte hartzea. Udalak eta udalaz gaindiko beste erakunde batzuk ICLEIn sartzea sustatzea eta bultzatzea. ICLEIren barruko Bizkaiko udalerrien arteko topaketak antolatzea. Europako Hiri eta Herri Iraunkorren Kanpainari buruzko informazioa argitaratzea Udalnet eta Bizkaia 21 atarian. 			
Lehentasuna	Ertaina	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Ingurumen Zuzendaritza Nagusia		
Kolaborazioa	Udal Harremanetarako eta Hirigintzarako Zuzendaritza Nagusia Udalak Europako Hiri eta Herri Iraunkorren Kanpaina ICLEI (Garapen Iraunkorren aldeko Tokiko Gobernuen Nazioarteko Elkarte)		
Adierazlea	Europako ekimen eta proiektuekin bat egin duten udalerrien kop. Europako Hiri eta Herri Iraunkorren Kanpainaren kolaboratzaileen sareko kideekin parte hartzeko proiektuen kop.		

2.3. ILDO ESTRATEGIKOA Iraunkortasuna Bizkaiko hezkuntzaren arloan txertatzea			
2.3.1. HELBURUA. Eskolako Agenda 21 indartzea.			
JARDUKETAK			
<ul style="list-style-type: none"> Komunikabidea ezartzea eta baterako lan-ildoak sustatzea Ingurugela Bizkaiarekin. Bizkaia 21 web ataria sortzea. Material didaktikoak sartzea Bizkaia 21 atarian. 			
Lehentasuna	Ertaina	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Ingurumen Zuzendaritza Nagusia		
Kolaborazioa	Ingurugela Bizkaia Bizkaiko ikastetxeak		
Adierazlea	Ingurugelarekin urtean eginiko jarduketak kop. Urte bakoitzean buruturiko jarduketak jaso dituzten pertsonen kop. Urtean Bizkaia 21 atarian sartutako hezkuntza material berrien kop.		
2.3.2. HELBURUA. Iraunkortasunaren arloko esperientzien trukaketa sustatzea hezkuntzaren sektorean.			
JARDUKETAK			
<ul style="list-style-type: none"> Bizkaiko ikastetxeetan topaketa iraunkorrak antolatzen laguntzea. Bizkaia 21 atarian guneak sortzea eskola esperientzia iraunkorrak erakusteko. Lankidetzak hitzarmenak ezartzea hezkuntzaren sektoreko iraunkortasun teknikariak trebatzeko. 			
Lehentasuna	Ertaina	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Ingurumen Zuzendaritza Nagusia		
Kolaborazioa	Ingurugela Bizkaia Ikastetxeak		

2.3. ILDO ESTRATEGIKOA			
Adierazlea	Ikastetxeetan urtean eginiko topaketa iraunkorren kop. Bizkaia 21 atarian erakutsitako eskola esperientzia iraunkorren kop. Hezkuntzaren sektorean iraunkortasun teknikari gisa trebaturiko pertsonen kop.		
<p>2.3.3. HELBURUA. Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasunean Oinarritutako Hezkuntzarako Ekintza Egitasmoa (PAES) eguneratzea, zabalkundea eta aplikazioa sustatzea.</p>			
JARDUKETAK			
<ul style="list-style-type: none"> Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasunean Oinarritutako Hezkuntzarako Ekintza Egitasmoa eguneratzea, Bizkaia 21 Egitasmo berriarekin (2011-2016) eta iraunkortasunaren lotutako beste plan edo programa batzuekin bat etorritz. Iraunkortasunean Oinarritutako Hezkuntzarako Ekintza Egitasmoa ezagutaraztea Bizkaiko Foru Aldundiko langileei eta Bizkaiko hezkuntzaren sektoreari. 			
Lehentasuna	Ertaina	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Ingurumen Zuzendaritza Nagusia		
Kolaborazioa	Foru Zuzendaritza guztiak		
Adierazlea	PAESi buruzko trebakuntza jaso duten BFAko pertsonen kop. PAES ezagutarazi den ikastetxe kop.		

2.4. ILDO ESTRATEGIKOA Iraunkortasuna oro har gizartean barneratzea			
<p>2.4.1. HELBURUA. Herritarrak garapen iraunkorrean parte hartzearen garrantziaz jabeatzea.</p>			
JARDUKETAK			
<ul style="list-style-type: none"> Kanpainak egitea herritarrek iraunkortasunean parte-hartze aktiboa izan dezaten. 			
Lehentasuna	Ertaina	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Ingurumen Zuzendaritza Nagusia		
Kolaborazioa	Udal Harremanetarako eta Hirigintzarako Zuzendaritza Nagusia Udalak		
Adierazlea	Urtean herritarrak iraunkortasunaz jabeatzeko eginiko kanpaina kop.		
<p>2.4.2. HELBURUA. Irisingarritasuna sustatzea eta iraunkortasun prozesuei buruzko informazioa zabal ezagutaraztea: planak burutzearen emaitzak, iraunkortasun-adierazleak, etab.</p>			
JARDUKETAK			
<ul style="list-style-type: none"> Bizkaia 21 ataria etengabe eguneratzea. Bizkaiko Foru Aldundiaren iraunkortasun-adierazleak jendaurrean ezagutaraztea. Foru instalazioei buruzko informazio kanpainak egitea, zabalkunderako eta herritarrak jakinaren gainean egiteko modua diren aldetik. 			
Lehentasuna	Ertaina	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Ingurumen Zuzendaritza Nagusia		
Kolaborazioa	Foru Zuzendaritza guztiak		
Adierazlea	Bizkaia 21 atariak urtean izandako bisiten kop. Egungo foru instalazioei buruzko informazio kanpainen onurak izan dituzten pertsonen kop.		

2.5. ILDO ESTRATEGIKOA			
Garapen iraunkorra errazten duen zerga-eredua sustatzea			
<p>2.5.1. HELBURUA. Ingurumen Zerga-erreformari buruzko lan-eremu baten sorrera bultzatzea foru aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren artean.</p>			
JARDUKETAK			
<ul style="list-style-type: none"> • Ingurumen Zerga Erreforma aztertu eta bultzatuko duen lan batzorde bat sortzea proposatzea Euskadiko Zergak Koordinatzeko Organoari. • Europa mailan ingurumenaren arloan abiarazitako zerga-erreformen azterlan konparatua proposatzea aurreko lan batzordearen baitan. 			
Lehentasuna	Handia	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Ogasuneko Zuzendaritza Nagusia		
Kolaborazioa	Ingurumen Zuzendaritza Nagusia Gipuzkoako Foru Aldundia Arabako Foru Aldundia Eusko Jaurlaritza		
Adierazlea	Bizkaia 21 Egitasmoa (2011-2016) jarraitzeko eta ebaluatzeko egitasmoan zehaztu beharrekoa		
<p>2.5.2. HELBURUA. Ingurumen fiskalitatearen onurak ezagutaraztea interesatu guztiei.</p>			
JARDUKETAK			
<ul style="list-style-type: none"> • Interesatuentzako informazio kanpainak egitea. • Ingurumen fiskalitatearen onurak argitaratzea Ogasuneko web orrian. 			
Lehentasuna	Ertaina	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Ogasuneko Zuzendaritza Nagusia		
Kolaborazioa	Ingurumen Zuzendaritza Nagusia		
Adierazlea	Ingurumen fiskalitatearen onurei buruz eginiko informazio kanpainen kop.		

2.5. ILDO ESTRATEGIKOA			
<p>2.5.3. HELBURUA. Zerga-iruzurra desagerraraztea ekitate eta justizia sozial handiagoak lortzeko kargen banaketan.</p>			
JARDUKETAK			
<ul style="list-style-type: none"> • Zergetan garrantzia duen informazioa lortzeko, normalizatzeko eta aztertzeko jarduketak egitea, zergak aplikatzeko prozeduren xedeko zergapekoen aukeraketa hobetzeko nahiz horien gainean eginiko prozedurak burutzeko. • Zergapekoen iruzurrezko jarduketak detektatzeko eta galarazteko prebentzio jarduketak egitea, baita zerga zorraren kobrantza bermatzeko kautelazko neurriak hartzea ere. • Zerga-zorrak erregularizatzeko eta kobratzeko jarduketak egitea, eta arlo horretan, arreta berezia jarriko da Ogasun eta Finantza Saileko Iruzuraren kontrako Batzordeak erabakitako jokabideetan edo sektore ekonomikoetan. 			
Lehentasuna	Handia	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Ogasuneko Zuzendaritza Nagusia		
Adierazlea	Ogasun eta Finantza Sailak aipaturikoetako zerga-iruzurra desagerrarazteko eginiko jarduketaren kop.		

5.3. 3. KONPROMISOA

Natur ondasun komunak

Natur ondasun komuna babesteko, zaintzeko eta berdintasunez eskuratzeko erantzukizuna erabat geure gain hartzea hitzartu dugu

Bizkaiko Foru Aldundiak ezinbestekotzat jotzen du **Bizkaiko ingurune naturalaren ahalmenaren babesean eta hobekuntzan** jardutea. Horretarako, biodibertsitatea babesteko jarduketak burutuko dira, eta arreta berezia jarriko da arriskuan dauden espezieetan, espezie inbaditzaileen prebentzioa eta desagerraraztea sustatuz; ekosistemen babesean, enplegua sortzearen eta gizarte-ekonomiaren garapenaren arloko azpiegitura berdeak sustatuz; biodibertsitate, geodibertsitate, paisaiaren eta, oro har, Bizkaian dauden ekosistemen ezagutza hobetuz.

Ildo beretik, hainbat azpiegiturak izandako ingurumen-eragina murrizteko ere egingo da lan; lurraren erabilera aldaketak eta okupazioa gutxitzeko eta optimizatzeko; balio agrologiko handiko lurak babesteko eta Bizkaiko ekosistemen zerbitzuak handitzeko hobi gisa; hala, klimaren aldaketaren ondorioak murriztuko dira.

Airearen kalitatearen hobekuntza da Bizkaia 21 Egitasmoak (2011-2016) ingurumenaren aldetik jardun nahi duen ezaugarri bat. Arlo horretako eskumenen banaketa konplexua dela-eta, Bizkaiko Foru Aldundiak airearen kalitatea hobetzeko lagungarriak izan daitezkeen jarduketa guztiak bultzatu nahi ditu, Bizkaiko udalerrien jarduketak hain zuzen.

Azkenik, eta aurreko Bizkaia 21 Egitasmoan aipaturiko lan-ildoarekin jarraituz, beharrezkotzat jotzen da Lurraldean **uraren kudeaketa ona** sustatzen jarraitzea. Premisa hori izanik, uholdeen ondorioak prebenitzeko eta arintzeko, Bizkaiko ibaien emari ekologikoa eta horren biodibertsitatea bermatzeko, uraren erabilera iraunkorra eremu guztietan sustatzeko eta ubide guztien kalitatea hobetzeko jarduketak bildu dira. Hala, egungo saneamendu eta arazketa planak osatuko dira.

3. KONPROMISOA. NATUR ONDASUN KOMUNAK

3.1. ILDO ESTRATEGIKOA
Bizkaiko ingurune naturalaren ahalmena zaintzea eta hobetzea

3.1.1. HELBURUA. Biodibertsitatea babestea, arriskuan dauden espezieetan arreta berezia jarritz, eta espezie inbaditzaileen prebentzioa eta desagerraraztea sustatzea.

JARDUKETAK

- Babesturiko espezieen kudeaketa planak egitea eta horien garapena bultzatzea.
- Espezie inbaditzaileak desagerrarazteko Bizkaian eginiko planak koordinatzea.
- Babesturiko espezieak mantentzeko jarduketak egitea eta biodibertsitaterako arriskuak murriztea (aisialdi jardunbide okerrak, etab.) zabalaldietan.
- Espezie eta arraza autoktonoak babesteko jarduketak sustatzea eta bultzatzea.

Lehentasuna	Handia	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Ingurumen Zuzendaritza Nagusia		
Kolaborazioa	Nekazaritza Zuzendaritza Nagusia Eusko Jaurlaritza Udalak		
Adierazlea	Bizkaian kudeaketa plana duten babesturiko espezieen % Bizkaian espezie inbaditzaileak desagerrarazteko eginiko planen kop. Babesturiko espezieak mantentzeko jarduketak egin diren zabalaldi guneen kopurua		

3.1.2. HELBURUA. Ekosistemak babestea, enplegua sortzearen eta gizarte-ekonomiako garapenaren arloko azpiegitura berdeak bultzatuz.

JARDUKETAK

- Geodibertsitatea sartzeko Bizkaiko Foru Aldundiaren jarduketetan.
- Milurteko Ekosistemen Ebaluazioa ikerketa-proiektua bultzatzea.

3.1. ILDO ESTRATEGIKOA			
<ul style="list-style-type: none"> Bizkaiko gizakiaren ongizaterako Ekosistemen Zerbitzuen Katalogoa egitea (hornidura, araupetzea eta kulturakoak). Bizkaiko Soinu Naturalaren Erreserbei buruzko jarduketak burutzea. 			
Lehentasuna	Ertaina	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Ingurumen Zuzendaritza Nagusia		
Kolaborazioa	UNESCO Euskal Herriko Unibertsitatea		
Adierazlea	Geodibertsitatea sartu deneko jarduketa kopurua Bizkaiko Milurtekoaren Ekosistemen web orriaren bisita kop. Bizkaiko Soinu Naturalaren Erreserben eremua		
<p>3.1.3. HELBURUA. Biodibertsitate, geodibertsitate, paisaia eta, oro har, Bizkaian dauden ekosistemen ezagutza eta onarpena hobetzea.</p>			
<p>JARDUKETAK</p>			
<ul style="list-style-type: none"> Bizkaiko biodibertsitate, geodibertsitate, paisaia eta ekosistemei buruzko informazio kanpainak egitea. Natur ondareari eta paisaiari buruzko jarduketa berriak sartzea Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasunean Oinarritutako Hezkuntzarako Ekintza Egitasmoan. Bizkaiko natur ondareari eta paisaiari buruzko informazioa sartzea Bizkaia 21 atarian. 			
Lehentasuna	Ertaina	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Ingurumen Zuzendaritza Nagusia		
Adierazlea	Bizkaiko biodibertsitate, geodibertsitate, paisaia eta ekosistemei buruzko informazio kanpainen kop.		

3.1. ILDO ESTRATEGIKOA			
<p>3.1.4. HELBURUA. Azpiegiturak dakarten ingurumen-eragina murriztea.</p>			
<p>JARDUKETAK</p>			
<ul style="list-style-type: none"> Ingurumenarekiko sentsibilizazioa bultzatzea azpiegiturak sortzen dituzten taldeen eta horiek eraikitzen dituzten artean (azpiegiturak ingurumen-irizpideekin sortu eta eraikitzeko ikastaroak). Ingurumen-eraginaren ebaluazioaren menpe jartzea lurraldean, ingurumenean eta pertsonen osasunean eragin zuzena duten Bizkaiko Foru Aldundiaren plan, egitasmo eta proiektu gutzietan. Ingurumen-organo gisa parte hartzea ingurumen-eraginaren ebaluazioaren menpeko proiektuen zuzenketa neurriak jarraitzeko lanetan. Eragin handi itzulezinetarako eta konponezinetarako sortutako konpentsazio neurriak planteatzeko irizpideak ezartzea: horien gainean ezin aplika daitezke zuzenketa edo babes neurriak. Kompentsazio neurrien proiektuen eraginkortasun maila jarraitzea. Bioingeniaritza teknikak lehenestea esku hartzeko guneen tratamenduan. Ebaketako ezponden azalerako egonkortzea ekiditea hormigoi proiektzioaren edo gunitatuaren bidez, behar bezala frogaturiko salbuespenezko egoeretan izan ezik. Gunita erabili beharreko salbuespenezko kasuetan, paisaia integratzeko beharrezko lanak burutuko dira, horien akabera inguruko lurraekin bat etor dadin. 			
Lehentasuna	Handia	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Bide Azpiegituren Zuzendaritza Nagusia		
Kolaborazioa	Ingurumen Zuzendaritza Nagusia		
Adierazlea	Bioingeniaritza teknikak erabili diren jarduketaren kopurua Azpiegiturak sortzeko eta eraikitzeko taldeak ingurumenaz jabearazteko jarduketaren kopurua		

3.1. ILDO ESTRATEGIKOA.			
Azkenik, landu beharreko beste ildoetako bat **berrikuntza eta ikerketarako kultura bultzatzea** izango da garapen iraunkorra lortze aldera. Helburu horrekin, berrikuntza eta ikerketa kontzeptua sartuko da trebakuntzan, jarduera zientifikoa eta oinarritzko teknologia iraunkorreko enpresen sorkuntza eta garapena sustatuz, baita teknologia iraunkorren elkarre eragileak ere teknologia horiek enpresa-sarean erabiltzeko ere. Halaber, ekoizpenaren sektorearen eta unibertsitatearen eta lanbide heziketaren arteko lotura eta koordinazioa handitu nahi dira, enpleguaren bidezko gizarte eta lurralde kohesioa ekarriko duten jakintzan, berrikuntzan eta iraunkortasunean oinarrituriko ekonomien aldeko apustua eginez, eta Bizkaiko Foru Aldundiaren eta unibertsitatearen arteko harremanak indartzea, bereziki programa honen edozein ildo estrategiko sakontzen duten proiektuetan.

8. KONPROMISOA. TOKIKO EKONOMIA BIZIA ETA IRAUNKORRA	
8.1. ILDO ESTRATEGIKOA Nekazaritza-abeltzaintza eta basogintza iraunkorra sustatzea Bizkaian	
8.1.1. HELBURUA. Nekazaritza gune iraunkorra eta horren landa ezaugarriak errespetatzen eta handitzen dituzten politikak indartzea	
<p style="text-align: center;">JARDUKETAK</p> <ul style="list-style-type: none"> • Basogintzaren kudeaketa iraunkorraren ziurtagiria bultzatzen jarraitzea Bizkaian. • Nekazaritza gune iraunkorra handitzeko laguntzen emakidari buruzko araudia egokitzea. • Bizkaiko Lurren Bankua sustatzea. • Nekazaritza-ingurumen programak eta laguntzak bultzatzea. • Ekoizpen ekologikoa eta integratua bultzatzea. • Ekonomi sarearen lehiakortasuna bultzatzea landako eskualde espezifikoetan. 	

8.1. ILDO ESTRATEGIKOA			
<ul style="list-style-type: none"> • Gazteak nekazaritza ustiapenetan eta landa eremuan sartzea bultzatzea. • Iraunkortasun irizpideak abiaraztea landa garapenerako programetan. 			
Lehentasuna	Handia	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Nekazaritza Zuzendaritza Nagusia		
Kolaborazioa	Euskadiko Baso Ziurtagirirako Elkarte		
Adierazlea	Basogintza kudeaketa iraunkorreko ziurtagiria duen Bizkaiko eremua Bizkaiko Lurren Bankuaren barruko eremua Nekazaritza-ingurumen programa eta laguntzetarako urteko foru aurrekontua (€/urtea) Ekoizpen ekologikorako eremua		
8.1.2. HELBURUA. Nekazaritza-abeltzaintza eta basogintza iraunkorreko produktuen kontsumoa eta aniztasuna handitzea herritarren artean eta Herri Administrazioen artean.			
JARDUKETAK			
<ul style="list-style-type: none"> • Informazio kanpainak egitea, nekazaritza-abeltzaintza eta basogintza iraunkorreko produktuak erabiltzearen onurak finkatuz. • Tokiko merkatuak eta eskulangintzako ekoizpena bultzatzea eta sustatzea. • Landa garapenerako elkarre bidezko jarduketak bultzatzea, tokiko merkatuak indartzeko. • Ekoizpen integratua eta arraza autoktonoak bultzatzea, ekoizpen naturaleko mekanismoak eta baliabideak ahalik eta gehien aprobetxatuz eta epe luzera nekazaritza iraunkorra bermatuz. 			
Lehentasuna	Ertaina	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Nekazaritza Zuzendaritza Nagusia		

8.1. ILDO ESTRATEGIKOA			
Kolaborazioa	Bizkaiko landa garapenerako elkarteak		
Adierazlea	<p>Urtean eginiko nekazaritza-abelzaintza eta basogintzari buruzko informazio kanpainen kopurua</p> <p>Bizkaian kontsumituriko eta nekazaritza iraunkorretik etorritako produktuen kantitatea</p> <p>Bizkaian kontsumituriko eta nekazaritza iraunkorretik etorritako produktuen kantitatea</p> <p>Bizkaian kontsumituriko eta nekazaritza iraunkorretik etorritako produktuen kantitatea</p>		
8.2. ILDO ESTRATEGIKOA Kalitateko enplegu iraunkorra sustatzea			
<p>8.2.1. HELBURUA. Jarduera-tasa igotzea, emakumea eta gazteak lan-merkatuan sartzearekin jarraituz.</p>			
JARDUKETAK			
<ul style="list-style-type: none"> • Kalitateko enpleguaren kontratazioa indartzea, bereziki gazteentzat eta emakumeentzat. • Praktiketako kontratazio programak garatzea. • Autoenplegurako aholkuak ematea emakumeei eta gazteei. 			
Lehentasuna	Handia	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Enpresak eta Berrikuntza Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia		
Kolaborazioa	Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusia Kirolen eta Gazteriaren Zuzendaritza Nagusia		
Adierazlea	<p>Praktiketako kontratazio programak egiteko urteko foru aurrekontua (€/urtea)</p> <p>Aholkuak jaso dituzten emakumeen kop.</p> <p>Aholkuak jaso dituzten gazteen kop.</p> <p>Emakumeei eginiko kontratuen kop.</p> <p>Gazteei eginiko kontratuen kop. (30 urteik beherakoei)</p>		

8.2. ILDO ESTRATEGIKOA			
<p>8.2.2. HELBURUA. Lan-eskaintza Bizkaiko Lurralde Historikoaren beharizanen eskariari egokitzea.</p>			
JARDUKETAK			
<ul style="list-style-type: none"> • Enplegu eta lan-merkatuari buruzko azterlanak egitea, arlo horietako erakunde kudeatzaileen lankidetzan. 			
Lehentasuna	Handia	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Enpresak eta Berrikuntza Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia		
Kolaborazioa	Lanbide		
Adierazlea	Enplegu eta lan-merkatuari buruzko azterlanen kop.		
8.3. ILDO ESTRATEGIKOA Ekonomia iraunkorrerako oinarriak ezartzea eta enpresa kudeaketa iraunkorra sustatzea			
<p>8.3.1. HELBURUA. Ekintzailetzaren hezkuntza bultzatzea, ekintzaile kultura iraunkorra sustatuz.</p>			
JARDUKETAK			
<ul style="list-style-type: none"> • Ekintzaile kultura iraunkorra sustatzea bigarren hezkuntzako eta batxilergoko ikasleen artean. • Ekintzaile kultura iraunkorra sustatzea lanbide heziketako ikastetxeetan. • Ekintzaile kultura iraunkorra sustatzea unibertsitateetan. 			
Lehentasuna	Ertaina	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Enpresak eta Berrikuntza Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia		
Adierazlea	<p>Parte hartu duten bigarren hezkuntzako, batxilergoko, lanbide heziketako eta unibertsitateetako ikastetxeen kop.</p> <p>Parte hartu duten bigarren hezkuntzako, batxilergoko, lanbide heziketako eta unibertsitateetako ikasleen kop.</p>		

8.3. ILDO ESTRATEGIKOA			
<p>8.3.2. HELBURUA. Iraunkortasun sistemen ezarpena bultzatzea (Berdintasun eta kultur aniztasun planak, Enpresa erantzukizuna, Ingurumen Kudeaketarako Sistemak, etab.) Bizkaiko enpresetan.</p>			
<p>JARDUKETAK</p>			
<ul style="list-style-type: none"> • XERTATUren jarduketak bultzatzea enpresen gizarte erantzukizunaren arloan. • Parte hartzeko foroak sortzea, Bizkaiko enpresek enpresaren kudeaketan iraunkortasun sistemak ezartzeko duten konpromiso maila handitzea, ekonomia, gizarte eta ingurumenaren arloak bilduta. • Iraunkortasun sistemak ezartzeko protokoloak erraztea. • Enpresetako iraunkortasun sistemen ezarpena sartzea diru-laguntzen dekretuen balorazio irizpideetan. 			
Lehetasuna	Ertaina	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Enpresak eta Berrikuntza Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia		
Adierazlea	<p>Xertaturen barruan erakundeen kopurua</p> <p>Parte hartzeko sortutako foroen kop.</p> <p>Foroetan parte hartu duten erakundeen kop.</p> <p>Balorazio irizpideen artean iraunkortasun sistemen ezarpena sartuta duten dekretuen kop.</p>		
<p>8.3.3. HELBURUA. Ondasun eta zerbitzu iraunkorren ekoizpena eta erabilera sustatzea, energiaren erabilerarekin, baliabide naturalekin edo substantzia arriskutsuekin lotutako ingurumen-eragin negatiboak murriztuz.</p>			
<p>JARDUKETAK</p>			
<ul style="list-style-type: none"> • Operadore ekonomikoen enpresako gizarte erantzukizunari buruzko estrategiak ezagutaraztea (gizarte, ekonomia eta ingurumen aldagaia biltzen duena). • Sektore ekonomikoen ingurumen iraunkortasun kontzeptuak ezagutaraztea (10 faktorea, ekoeraginkortasuna, biomimesia, ekodiseinua, ekoindustria, nekazaritza ekologikoa, energi eraginkortasuna...). 			

8.3. ILDO ESTRATEGIKOA			
<ul style="list-style-type: none"> • Osasun, ingurumen eta turismoari buruzko topaketen antolakuntzan laguntzea. • Energia berriztagarriak sustatzea Bizkaiko enpresetan eta enpresek eurek ekoiztako energia erabiltzea. • Iraunkortasunaren arloko lanbide heziketa bultzatzea. • Ondasun eta zerbitzu iraunkorrek lotutako proiektu berriztaileen eta lehiaren hobekuntzan laguntzea enpresei. • Ondasun eta zerbitzu iraunkorren ekoizpenarekin eta erabilerarekin lotutako enpresen sorkuntza bultzatzea. 			
Lehetasuna	Ertaina	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Enpresak eta Berrikuntza Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia		
Adierazlea	<p>Ekonomi jarduerak sortutako energia berriztagarrien kW kopurua</p> <p>Bultzaturiko proiektu berriztaileen eta lehia hobetzeko proiektuen kop.</p> <p>Ondasun eta zerbitzu iraunkorren ekoizpenarekin eta erabilerarekin lotutako enpresen sorkuntza bultzatzea</p>		
<p>8.3.4. HELBURUA. Tokiko merkatuak eta dendak indartzea.</p>			
<p>JARDUKETAK</p>			
<ul style="list-style-type: none"> • Egiturak sortzea landa garapenerako elkarteen bidez, tokiko ekoizpena bideratzeko eta tokiko merkatuak sustatzeko. • Tokiko produktuak erabiltzearen onurak bultzatzeko informazio kanpainak egitea. • Tokiko merkataritza sustatzeko plan estrategikoak idazteko eta abiarazteko diru-laguntzak ematea. • Bizkaiko merkataritza elkarteei laguntzea. • Bizkaiko eskulangintza bultzatzea. 			
Lehetasuna	Ertaina	Epea	2011-2016

8.3. ILDO ESTRATEGIKOA	
Erantzukizuna	Enpresak eta Berrikuntza Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia Nekazaritza Zuzendaritza Nagusia
Kolaborazioa	Bizkaiko landa garapenerako elkarteak Udalak
Adierazlea	Tokiko produktuak erabiltzearen onurei buruzko informazio kanpainen kop. Tokiko merkataritza sustatzeko Plan Estrategikoa egin duten udalerrien kop. Bultzaturiko merkataritza elkarten kop. Bultzaturiko eskulangileen kop. Bultzaturiko eskulangintzan azoken kop.

8.4. ILDO ESTRATEGIKOA
Bizkaian turismo iraunkorra sustatzea

8.4.1. HELBURUA. Bizkaian kalitateko turismo iraunkorra identifikatzeko eta ezagutzeko marka lortzea.

JARDUKETAK

- Bizkaia natura gozatzeko helmuga izatearekin lotzen duten baliabideak erabiltzea sustapenerako turismo ekintzetan: ondo zaindutako eremuak, hondartzak eta kalitate bikaineko urak, bai bainua hartzeko, bai itsasoko kirolak egiteko.
- Bizkaia turismo neurri orekatua duen helmuga izatearen gaineko ideia garatzea eta helaraztea, sustapen ekintzen eta hain konbentzionalak ez diren beste tresna batzuen bidez, gainezka dagoen eremu edo kultur baliabiderik gabekoa, non oraindik ere banakoak eta esperientzia bakarrak tokia duten.
- Bizkaia nortasun eta balio bakarrak dituen helmuga izatearen gaineko ideia garatzea eta helaraztea sustapen ekintzen eta hain konbentzionalak ez diren beste tresna batzuen bidez: uki daitezkeen eta ezin uki daitezkeen ondarea, ezberdina, originala eta ondo zaindua, hori guztia helmugaren turismo iraunkortasuneko jardun honen irudia.
- Balio horiek zaintzeko azpimarka turistikoak lortzen laguntzea, turismoa dinamizatzeko planen eta tresna nagusiaren bidez eta horiek garatzeko diru-laguntzen bidez.

8.4. ILDO ESTRATEGIKOA			
<ul style="list-style-type: none"> • Iraunkortasun printzipio horiek errespetatzen dituzten produktu turistikoak zaintzea eta sustatzea; izan ere, irizpide horiek, azkenean, lagungarriak izango dira helmuga iraunkor gisa identifikatzeko. 			
Lehentasuna	Ertaina	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Turismorako eta Kanpo Sustapenerako Zuzendaritza Nagusia		
Adierazlea	Bizkaian kalitateko turismo iraunkorra identifikatzeko eta ezagutzeko marka lortzeko urteko foru aurrekontua (€/urtea) Bultzaturiko turismo proiektuen kop.		

8.4.2. HELBURUA. Bizkai osoan kalitateko turismo iraunkorra sustatzea, lurraldeko egonaldi ertain-luzea bultzatuz.

JARDUKETAK

- Kulturarekin eta ingurumen eta kultura ondarearekin lotutako baliabideen aldeko apustua egitea, turismoa garatzeko tokiko eta eskualdeko entitateekiko lankidetzari handiaren bidez.
- Kalitateko turismo ekipamendu, baliabide eta zerbitzu iraunkorren sorrera erraztea, prozesu horiek aurretik dauden beste batzuetan bultzatuz eta indartuz, egonaldi luzeetako parametroetako itzulerak bermatzeko xedez.
- Iraunkortasunaren arloko trebakuntza ekintza garatzea turismoaren eremuan, zerbitzuen kalitatea hobetuko dutenak, baita turistaren gogobetetasun mailak ere.
- Turismo produktu iraunkorrak sortzeko laguntza ematea hala nola naturarekin bat eginik burutu daitezkeenak edo euskal kulturaren edozein adierazpenekin zerikusia dutenak.

Lehentasuna	Ertaina	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Turismorako eta Kanpo Sustapenerako Zuzendaritza Nagusia		
Kolaborazioa	Turismoa garatzeko tokiko eta eskualdeko erakundeak		

8.4. ILDO ESTRATEGIKOA			
Adierazlea	Sorturiko turismo ekipamendu, baliabide eta zerbitzu iraunkorren kop. Iraunkortasunaren arloko trebakuntzen kopurua turismoan Sorturiko turismo produktu iraunkorren kop.		
8.5. ILDO ESTRATEGIKOA Berrikuntza eta ikerketa kultura sustatzea Bizkaian garapen iraunkorra lortzeko			
8.5.1. HELBURUA. Berrikuntza eta ikerketa kontzeptua txertatzea trebakuntzan.			
JARDUKETAK			
<ul style="list-style-type: none"> Unibertsitate, enpresa, teknologi zentroen eta Bizkaiko Foru Aldundiaren arteko lankidetzak bultzatzea, haien eskumeneko eremuetan kultura iraunkortasuna sortzeko, garapen iraunkorrerako ikerketa eta berrikuntza sustatze aldera. 			
Lehentasuna	Ertaina	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Enpresak eta Berrikuntza Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia		
Kolaborazioa	Unibertsitateak Teknologi zentroak I+G-ko azterlan eta azterketa entitateak Enpresa elkarteak eta enpresak		
Adierazlea	Enpresa, unibertsitate edota teknologi zentroen artean Bizkaiko Foru Aldundiaren bitartekotzari esker ezarritako lankidetzak hitzarmenen kop.		
8.5.2. HELBURUA. Ikerketa zientifikoa sustatzea.			
JARDUKETAK			
<ul style="list-style-type: none"> Kolaborazio ikerketa sustatzea, unibertsitate, teknologi zentro, ikerketa kooperatiboko zentro, fundazio eta I+G-ko sektoreko elkarten arteko garapen iraunkorrerako. 			

8.5. ILDO ESTRATEGIKOA			
<ul style="list-style-type: none"> Lankidetzak hitzarmenak ezartzea EHUKo Garapen Iraunkor eta Ingurumen Heziketako UNESCO Katedrarekin. Plentziako Itsas Estazioa zentroa bultzatzea (EHU). Urdaibai Bird Centre ornitologi ikerketa zentroa bultzatzea. Bizkaiko hondartzen ingurumen-kalitateari buruzko azterlanak egitea. Irabazteko asmorik gabeko entitateak bultzatzea hondakinen kudeaketaren azterlanen eremuan. 			
Lehentasuna	Ertaina	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Enpresak eta Berrikuntza Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia Ingurumen Zuzendaritza Nagusia Ingurumen Azpiegituren Zuzendaritza Nagusia		
Kolaborazioa	Unibertsitateak Teknologi zentroak Irabazteko asmorik gabeko entitateak		
Adierazlea	Bultzaturiko kolaborazioko ikerketa proiektuen kop. Plentziako Itsas Estazioa eta Urdaibai Bird Centre delakoa bultzatzeko urteko foru aurrekontua (€/urtea) Irabazteko asmorik gabeko entitateak bultzatzeko urteko foru aurrekontua hondakinen kudeaketaren azterlanaren eremuan (€/urtea)		

8.5. ILDO ESTRATEGIKOA			
<p>8.5.3. HELBURUA. Pizgarriak ematea oinarri teknologiko iraunkorreko enpresak sortzeko eta garatzeko, baita teknologia iraunkorren elkarte eragileenak ere.</p>			
<p>JARDUKETAK</p>			
<ul style="list-style-type: none"> • Oinarri teknologiko iraunkorreko enpresen sorrera bultzatzea. • Teknologia iraunkorrak garatzeko lankidetzaz erraztea. • Teknologia iraunkorrak enpresa-sarean erabiltzea sustatzea. 			
Lehentasuna	Handia	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Enpresak eta Berrikuntza Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia		
Adierazlea	Sortutako oinarri teknologiko iraunkorreko enpresen kop. Bultzaturiko teknologia iraunkorren elkarte eragileen kop.		
<p>8.5.4. HELBURUA. Ekoizpenaren sektorearen eta unibertsitatearen eta lanbide heziketaren arteko lotura eta koordinazioa handitzea, enpleguaren bidezko gizarte eta lurralde kohesioa ekarriko duten jakintzan, berrikuntzan eta iraunkortasunean oinarrituriko ekonomien aldeko apustua eginez.</p>			
<p>JARDUKETAK</p>			
<ul style="list-style-type: none"> • Laguntza instituzionala ematea Bizkaiko Lurralde Historikoan dauden klusterrei, helburu honen eremuaren barruan. • Enpresa, unibertsitate eta LHko ikastetxeen arteko harremanak garatzea eta finkatzea eta enpresan identifikaturiko beharrei erantzuna emango dien ezagutza identifikatzea honako helburu honen eremuaren barruan. • BFAK unibertsitateekin eta lanbide heziketako ikastetxeekin kolaboratzeko jarduketak indartzea, enpresetara gehiago hurbiltzeko, honako helburu honen eremuaren barruan. 			
Lehentasuna	Handia	Epea	2011-2016

8.5. ILDO ESTRATEGIKOA	
Erantzukizuna	Enpresak eta Berrikuntza Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia
Kolaborazioa	Unibertsitateak Klusterak Lanbide heziketako ikastetxeen sarea Bizkaiko enpresak
Adierazlea	Klusterrekiko kolaborazio jarduketan kop. Bultzaturiko enpresen eta ikastetxeen arteko kolaborazio jarduketan kop.
<p>8.5.5. HELBURUA. Bizkaiko Foru Aldundiaren eta unibertsitatearen arteko harremanak indartzea, bereziki egitasmo honen edozein ildo estrategiko sakontzen duten proiektuetan.</p>	
<p>JARDUKETAK</p>	
<ul style="list-style-type: none"> • Emakumeen eta gizonen berdintasunaren, garapenerako lankidetzaren eta aniztasunaren eremuetan lan egiten duten unibertsitate erakundeekin harremanetan izateko eta kolaboratzeko bidea ezartzea. • BFAK unibertsitateekin dituen kolaborazio jarduketak indartzea eta egitasmo honen edozein ildo estrategiko sakontzen duten proiektuak sartzeko. 	
Lehentasuna	Ertaina Epea 2011-2016
Erantzukizuna	Foru Zuzendaritza guztiak
Kolaborazioa	Unibertsitateak
Adierazlea	BFAK unibertsitate proiektuekin izandako kolaborazioen kop. BFAK unibertsitateari kontrataturiko proiektuen kop.

5.9. 9. KONPROMISOA.

Berdintasuna eta gizarte justizia

Erkidego integratzaileak eta solidarioak bermatzea hitzartu dugu

Berdintasuna eta gizarte justizia termino zabalak eta orokorrak dira, baina berebiziko garrantzia dute, eta foru entitatean, konpromiso honen itzalpean, lau ildo estrategiko landu nahi dira. Horietako lehenengoaren ardatza Bizkaian **genero berdintasuna lortzea** da. Premisa horrekin, emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna indartzearen aldeko lanean jarraituko da eremu guztietan, emakumeenganako indarkeria kasuak desagerrarazteko ahaleginak bideratuz.

Beste ikuspegi batetik -baina ez garrantzi txikiagokoa-beharrezkotzat jotzen da **tokiko nortasuna eta kultura sustatzea**. Arlo horretan, ahaleginak egin nahi dira euskararen ezagutza eta erabilera zabaltzeko eta euskal kultura eta tokiko kultur adierazpenak sustatzeko.

Aalborg+10 Konpromisoetako bederatzigarrenaren eremuko hirugarren ildo estrategikoa **bizikidetzaren sustatzea da aniztasunaren kudeaketaren bidez**. Horretarako, printzipioetan eta balioetan hezteko beharrezkoa dela deritzo Aldundiak, aniztasunera irekitako gizarte izateko, gizarteratzea eta elkar ulermena errazteko. Hala, galarazi egingo da kulturartekotasuna norberaren nortasuna galtzarekin lotzea eta sexu aniztasunarekiko tolerantzia eta errespetua sustatuko da.

Azkenik, Bizkairako **bidezko gizarte eredu orekatua sortzeko** lana egin nahi da. Ildo horretan, gizarte errealitatearen, herritarren beharren eta eskarien eta arlo horretako jarduketak publikoen ondorioen ezagutza etengabe eguneratzeko jarduketak burutuko dira eta Bizkairako gizarte eredu berriaren definizioa sustatuko da.



9. KONPROMISOA. BERDINTASUNA ETA GIZARTE JUSTIZIA

9.1. ILDO ESTRATEGIKOA Genero berdintasuna lortzea Bizkaian

9.1.1. HELBURUA. Emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna indartzen jarraitzea eremu guztietan.

JARDUKETAK

- Maskulinitate berriei buruzko trebakuntza eskaintza foru langileei.
- Gizonak sartzeko bultzatzen jarraitzea benetako berdintasuna lortze aldera.
- Genero berdintasuna zeharka sartzeko foru jarduketako programa eta politika guztietan.
- Berdintasunaren inguruko aholkuak ematea udalerriei eta udalerrietako arlo horretako itunen estrategiak koordinatzea.
- Herritarrak sentsibilizatzeko eta emakumeak jabeatzeko jarduketak egitea.
- Emakumeen bizi-baldintzak hobetzea landa ingurunean.

Lehentasuna	Handia	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusia		
Kolaborazioa	Foru zuzendaritza guztiak		
Adierazlea	Maskulinitate berrien arloan trebaturiko BFAko langileen kopurua Berdintasunaren gaineko aholkuak jaso dituzten udalerrien kop. Herritarrak sentsibilizatzeko eta emakumeak jabeatzeko jarduketak egitea		

9.1. ILDO ESTRATEGIKOA			
<p>9.1.2. HELBURUA. Emakumeenganako indarkeria kasuak desagerrarazteko ahaleginak bideratzea.</p>			
<p>JARDUKETAK</p>			
<ul style="list-style-type: none"> Herritarrak emakumeenganako indarkeriaren arloan jabeatzeko kanpainak egitea. 			
Lehentasuna	Handia	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusia Gizarteratzea Sustatzeko Zuzendaritza Nagusia		
Kolaborazioa	EMAKUNDE Genero-indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza Nagusia		
Adierazlea	Genero-indarkeriari buruzko sentsibilizazio kanpainen kopurua		
9.2. ILDO ESTRATEGIKOA			
Tokiko kultura eta nortasuna sustatzea			
<p>9.2.1. HELBURUA. Euskararen ezagutza eta erabilera zabaltzea.</p>			
<p>JARDUKETAK</p>			
<ul style="list-style-type: none"> Azkue Fundazioa indartzea Bizkaiko eta Euskadiko euskararen erreferente estrategiko gisa. Bizkaieraren ikerketa eta erabilera bultzatzea, ikerketa eta zabalkunde erakundeen eta argitalpenen bidez (Bizkaie...). Bizkaiko udalerriei eta eskualdeei buruzko gizarte-hizkuntzako ikerketak laguntzea. Bizkaiko gizarte elkarteek eginiko euskarazko jarduerak bultzatzea. Euskara informazioaren eta komunikazioaren teknologietan sartzea sustatzea. Udal eta mankomunitateko gizarte-hizkuntza eragileak trebatzeko eta koordinatzeko ikastaroak egitea (Alkarbide). Euskararen erabilera sustatzea Bizkaiko Foru Aldundiaren barne funtzionamenduan. 			

9.2. ILDO ESTRATEGIKOA			
<ul style="list-style-type: none"> Euskararen erabilera sustatzea Bizkaiko Foru Aldundiaren eta herritarren arteko harremanetan. 			
Lehentasuna	Handia	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Euskara Zuzendaritza Nagusia		
Kolaborazioa	Foru Zuzendaritza guztiak Udalak Azkue Fundazioa Labayru		
Adierazlea	<p>Euskararen ezagutza eta erabilera zabaltzeko urteko foru aurrekontua (€/urtea)</p> <p>Euskararekin lotutako eta bultzaturiko ikerketen kopurua</p> <p>Euskaraz sustaturiko jardueren kopurua</p> <p>Euskarazko atariaren erabiltzaileen kopurua: www.bizkaia.net</p> <p>Gizarte-hizkuntzako eragileak trebatzeko eta koordinatzeko ikastaroen kopurua</p> <p>BFAn euskaraz tramitaturiko kudeaketa eta kontsulten %</p>		
<p>9.2.2. HELBURUA. Euskal kultura eta tokiko kultur adierazpenak sustatzea.</p>			
<p>JARDUKETAK</p>			
<ul style="list-style-type: none"> Gazteenen artean sormena indartzeko Bizkaldatz literatura saria sustatzea. Gure kultura ezagutarazteko erakusketak egitea. Irakurketa txokoak sustatzea, literaturari eta euskal idazleek euskaraz nahiz gaztelaniaz idatzitako lanei buruzko bateratze-lana egiteko. Euskarazko Irakurle Taldea sustatzea (laguntza taldea eta euskarazko irakurketa sustatzea). 			
Lehentasuna	Ertaina	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Kultura Zuzendaritza Nagusia		

9.2. ILDO ESTRATEGIKOA .			
Kolaborazioa	Euskara Zuzendaritza Nagusia		
Adierazlea	<p>Euskal kultura eta tokiko kultur adierazpenak sustatzeko urteko foru aurrekontua (€/urtea)</p> <p>Bizkaldatz literatura sariko partaideen kopurua</p> <p>Euskal kultura ezagutarazten duten erakusketen kopurua</p> <p>Irakurketa Txokoen jardueren kopurua</p>		
9.3. ILDO ESTRATEGIKOA			
Bizikidetzaren sustatzea aniztasunaren kudeaketaren bidez			
<p>9.3.1. HELBURUA. Printzipioetan eta balioetan hezteko aniztasunari irekitako gizarte izateko.</p>			
JARDUKETAK			
<ul style="list-style-type: none"> • Foru langileak giza eskubideetan eta aniztasunaren kudeaketan trebatzea. • Gizarte bizikidetzaren arloan sentsibilizazio jarduketak egitea. 			
Lehenetasuna	Handia	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusia Funtzio Publikoaren Zuzendaritza Nagusia		
Kolaborazioa	Aniztasunaren alde lan egiten duten elkarteak		
Adierazlea	<p>Giza eskubideetan eta aniztasunaren kudeaketan BFAn trebatutako langileen kopurua</p> <p>Herritarrak jabeatzeko buruturiko kanpainen kopurua</p>		
<p>9.3.2. HELBURUA. Gizarteratzea eta elkar ulertzea bultzatzea, kulturartekotasuna eta norberaren nortasunaren galerarekin lotzea galaraziz.</p>			

9.3. ILDO ESTRATEGIKOA.			
JARDUKETAK			
<ul style="list-style-type: none"> • Elkartegintza indartzea herri eta gizarte partaidetza handiagoa izateko. • Mestizajearen literaturari buruzko ikastaroak antolatzea: kulturen arteko topaketa. 			
Lehenetasuna	Ertaina	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusia		
Kolaborazioa	Kultura Zuzendaritza Nagusia Elkarteak		
Adierazlea	<p>Gizarteratzearen alde lan egiten duten elkarteentzako urteko foru aurrekontua (€/urtea)</p> <p>Mestizajearen literaturari buruzko ikastaroen kopurua</p>		
<p>9.3.3. HELBURUA. Sexu aniztasunerako errespetua eta tolerantzia sustatzea.</p>			
JARDUKETAK			
<ul style="list-style-type: none"> • Elkartegintza indartzea herri eta gizarte partaidetza handiagoa izateko. • Sexu aniztasunaren arloan sentsibilizazio jarduketak egitea. 			
Lehenetasuna	Ertaina	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusia		
Kolaborazioa	Elkarteak		
Adierazlea	<p>Sexu aniztasunaren errespetua eta tolerantzia sustatzen diharduten elkarteentzako urteko foru aurrekontua (€/urtea)</p> <p>Sexu aniztasunaren arloan eginiko sentsibilizazio jarduketaren kopurua</p>		

9.4. ILDO ESTRATEGIKOA Bizkairako bidezko gizarte eredu orekatua sortzea			
<p>9.4.1. HELBURUA. Gizarte errealitatearen, herritarren behar eta eskarien eta arlo honetako herri jarduketaren ondorioen ezagutza etengabe eguneratzea.</p>			
JARDUKETAK			
<ul style="list-style-type: none"> Herritarren beharrak eta eskariaren bilakaera ebaluatzea ahalbidetuko duten azterlanak egitea eta, bereziki, aldaketei aurrea hartzeko modua emango duten azterlan prospektiboak. Zuzeneko komunikabidea izatea gizarte eragileekin ezagutza partekatzeko. Gizarte Ekintza Saileko Prestazio eta Zerbitzuen Zorroa eguneratzea. 			
Lehetasuna	Handia	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Administrazioaren eta Plangintzaren Zuzendaritza Nagusia		
Kolaborazioa	Ogasuneko Zuzendaritza Nagusia		
Adierazlea	<p>Gizartearen eta herritarren beharren eta eskarien errealitatearen ezagutza eguneratzeko urteko foru aurrekontua (€/urtea)</p> <p>Eginiko azterlanen kop.</p> <p>Gizarte Ekintza Saileko Prestazio eta Zerbitzuen Zorroa eguneratzea</p>		

9.4. ILDO ESTRATEGIKOA			
<p>9.4.2. HELBURUA. Bizkairako gizarte ereduaren definizioa sustatzea.</p>			
JARDUKETAK			
<ul style="list-style-type: none"> Ikusitako beharrak oinarri hartuta, Bizkaiko Foru Aldundiak eskaini beharko lituzkeen zerbitzuak eta prestazioak aipatzea. Zerbitzu edo prestazio horiek eskaini beharko liratekeen baldintzak zehaztea. Identifikaturiko gizarte eredurako beharrezko finantza baliabideak baloratzea. 			
Lehetasuna	Handia	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Administrazioaren eta Plangintzaren Zuzendaritza Nagusia		
Adierazlea	Bizkairako gizarte ereduaren definizioa sustatzeko urteko foru aurrekontua (€/urtea)		

5.10. 10. KONPROMISOA
Toki mailatik maila globalera

Bake, justizia, garapen iraunkor eta klima babesteko erantzukizuna geure gain hartzea hitzartu dugu

Aalborg+10 konpromisoetako hamargarren konpromisoaren eremuan, Bizkaiko Foru Aldundiak landu beharreko hiru lan-ildo zehaztu ditu. Horietako lehenengoaren ardatza **garapenerako nazioarteko lankidetzaren sustatzea** da. Horretarako, garapenerako lankidetzako politikak eta konpromisoak hobetu behar ditu nahitaez, pobrezia eta desberdintasunen kontra borrokatzeko eta herrialdeen arteko oreka ekonomikoa eta soziala sustatzeko, politiken iraunkortasuna eta koherentzia garapenerako lankidetzako jarduketak guztietan sartzeko eta nazioarte mailan kooperatzeko, herrialde guztiek giza garapen iraunkorra euren gain hartzeko modukoa izan dadin.

Bigarrenik, ahal dela, **klimateko aldaketaren ondorioak arintzeko** ahaleginak ere bideratu nahi dira. Horretarako,

Europako helburua betetzeko ekintzak bultzatuko dira, hots, negutegi-efektuko gasen emisioak murriztea, energia kontsumoa aurrezteko eraginkortasun neurrien bidez eta energia berriztagarrien ekarpena handitzea.

Hirugarrenik, Bizkaia 21 Egitasmo (2011-2016) honetan landutako alderdi guztiekin bukatzeko, **ingurumen justizia sustatzeko** lagungarria izan eta ildo horretan lan egin nahi du Aldundiak Bizkaiko Lurralde Historikoaren barruan eta kanpoan. Ildo horretan, Bizkaiko aztarna ekologikoa murrizteko eta zor ekologikoa eta kanpo zorraren barkamena lortzeko helburuak ezarri dira, herri eta herrialde goranzkorrei "amortizazio" bat itzuliz proiektu iraunkor gisa.

10. KONPROMISOA. TOKI MAILATIK MAILA GLOBALERA			
10.1. ILDO ESTRATEGIKOA Garapenerako nazioarteko lankidetzaren sustatzea			
10.1.1. HELBURUA. Garapenerako lankidetzako politikak eta konpromisoak hobetzea, pobrezia eta desberdintasunen kontra borrokatzeko eta herrialdeen arteko oreka ekonomikoa eta soziala sustatzeko.			
JARDUKETAK			
<ul style="list-style-type: none"> • Kudeaketa propioaren aurrekontuaren %0,7 gutxienez garapenerako lankidetzako jarduketarako. • Zuzeneko lankidetzaren handitzea eta hobetzea. 			
Lehentasuna	Handia	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusia		
Kolaborazioa	Bizkaiko irabazteko asmorik gabeko entitateak		
Adierazlea	Nazioarteko lankidetzarako urteko foru aurrekontua (€/urtea) Garapenerako lankidetzarako urteko foru aurrekontuaren %		

10.1. ILDO ESTRATEGIKOA			
10.1.2. HELBURUA. Politiken iraunkortasuna eta koherentzia garapenerako lankidetzako gure jarduketa guztietan sartzea.			
JARDUKETAK			
<ul style="list-style-type: none"> • Iraunkortasuna lankidetzako eta hezkuntza eta sentsibilizazioko ekintzetan sartzea sustatzea. • Politika sektorialak garapenerako lankidetzako foru politikarekiko koherenteak direla zaindua. 			
Lehentasuna	Ertaina	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusia		
Kolaborazioa	Foru Zuzendaritza guztiak		
Adierazlea	Iraunkortasun irizpideak sartuta dituzten garapenerako lankidetzako jarduketaren kop.		
10.1.3. HELBURUA. Nazioarte mailan kooperatzea, beste herrialde batzuek giza garapen iraunkorra euren gain hartzeko modukoa izan dadin.			
JARDUKETAK			
<ul style="list-style-type: none"> • Herri Administrazioen jardunbide onak aipatzea eta ezagutaraztea, giza garapen iraunkorrari buruzkoak. 			
Lehentasuna	Ertaina	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusia		
Kolaborazioa	Bizkaiko irabazteko asmorik gabeko entitateak		
Adierazlea	Aipaturiko giza garapen iraunkorreko jardunbide onen kop. Bizkaiko Foru Aldundiak eginiko nazioarteko lankidetzako jarduketaren kop.		

10.2. ILDO ESTRATEGIKOA Klima aldaketaren ondorioak gutxitzea			
<p>10.2.1. HELBURUA. Horretarako, Europako helburua betetzeko ekintzak bultzatuko dira, hots, negutegi-efektuko gasen emisioak murriztea, energia kontsumoa aurrezteko eraginkortasun neurrien bidez eta energia berriztagarrien ekarpena handitzea.</p>			
JARDUKETAK			
<ul style="list-style-type: none"> • Bizkaiko Energia Iraunkorrerako Estrategia zehaztea. • Bizkaiko energia berriztagarriak baliatzea (eguzkikoa, eolikoa, itsasokoa, biomasa, geotermia...), ingurumenean eragin txikia izanik. • Klimaren Aldaketaren Kontrako Euskal Planaren neurriak aplikatzea. • Energia iraunkorren planen onespena bultzatzea Bizkaiko udalerrietan eta eskualdeetan. • Bizkaiko hondakindegia apurka ixtea eta zigilatzea eta horietako metanoa atzematen saiatzea. 			
Lehentasuna	Handia	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Ingurumen Zuzendaritza Nagusia		
Kolaborazioa	Administrazioaren, Zerbitzuen eta Berrikuntza Publikoaren Zuzendaritza Nagusia Udal Harremanetarako eta Hirigintzarako Zuzendaritza Nagusia		
Adierazlea	Bizkaian ekoizitako iturri berriztagarrietako energiaren urteko kopurua, iturrien arabera banakatua Onetsitako udal edo eskualdeko energia iraunkorren planen kop.		

10.3. ILDO ESTRATEGIKOA Ingurumen justizia sustatzea			
<p>10.3.1. HELBURUA. Bizkaiko Aztarna Ekologikoa murriztea.</p>			
JARDUKETAK			
<ul style="list-style-type: none"> • Bizkaiko Aztarna Ekologikoa urtero kalkulatzeko. • Bizkaiko Foru Aldundiaren jardueren Aztarna Ekologikoa urtero kalkulatzeko. • Bizkaia 21 Egitasmoa (2011-2016) osatzen duten jarduketan multzoa benetan aplikatzearen ondorioz Bizkaiko Aztarna Ekologia murrizten dela egiaztatzea. 			
Lehentasuna	Handia	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Ingurumen Zuzendaritza Nagusia		
Kolaborazioa	Foru Zuzendaritza guztiak		
Adierazlea	Bizkaiko Aztarna Ekologikoa Bizkaiko Foru Aldundiaren Aztarna Ekologikoa		



10.3. ILDO ESTRATEGIKOA			
<p>10.3.2. HELBURUA. Zor ekologikoa eta kanpo zorraren barkamena lotzea, herri eta herrialde goranzkorrei "amortizazio" bat itzuliz proiektu iraunkor gisa.</p>			
<p>JARDUKETAK</p>			
<ul style="list-style-type: none"> • Zor ekologikoari eta kanpoko zorrari buruzko sentsibilizazio kanpainak egitea, horien arteko lotura estua azpimarratuz. • Zor ekologikoaren eta kanpoko zorraren balantzea kalkulatzeko Bizkairako, eta "amortizazio" bat egitea proiektu iraunkor gisa kanpoko herrialdeetan. 			
Lehentasuna	Ertaina	Epea	2011-2016
Erantzukizuna	Berdintasunerako Zuzendaritza Nagusia		
Kolaborazioa	Ogasuneko Zuzendaritza Nagusia		
Adierazlea	Eginiko sentsibilizazio kanpainen kopurua BFAk kanpoko herrialdeetan bultzaturiko proiektu iraunkorren kopurua		

6. JARRAIPENA ETA BERRIKUSPENA

Zehazturiko helburu eta ildo estrategikoen erabateko garapena bermatzeko, beharrezkoa da aldizkako jarraipen eta berrikuspen tresnak ezartzea, aurrerapen maila ebaluatzeko, zailtasunak ikusteko eta desbideratzeak zuzentzeko modua izateko, ezarritako helburuak Bizkaia 21 Egitasmoaren (2011-2016) indarraldia amaitu baino lehen lortu ahal izateko.

Hala, Bizkaia 21 Egitasmoa (2011-2016) onetsi eta berehala, jarraipen eta koordinazio tresnak aztertuko dira, horretarako arduradun egokiak zehaztuko dira eta horien aplikazioa planifikatuko da.

Zehazkiago, Bizkaia 21 Egitasmoaren (2011-2016) helburuak jarraitzeko eta Egitasmoaren betearazpen maila **jarraitzeko erabili beharreko adierazleen sistema** zehaztuko da, eta ahal dela, foru erakundeak dagoeneko bere gain hartutako eta sistematizaturiko iraunkortasun adierazleak sartzeko ahaleginak egingo dira.

Halaber, **arduradunei** dagokienez, oinarrizko informazioa bilduko duten eta izendatu diren iraunkortasun eragileez gain, Bizkaia 21 Egitasmoa (2011-2016) jarraitzeko eta kudeatzeko organoa ezartzeko aukerak aztertuko dira, eta organo horrek intereseko beste eragile batzuk sartuko ditu. Era berean, herritarrek Biztanleen Mahaia Foroa bezalako guneetan edo planaren aurrerapen mailaren urteko ebaluazioetan parte hartzeko aukera aztertuko da, baita lorturiko emaitza nagusiei jakinarazi ere.

Azkenik, egitasmoaren **jarraipenaren gertaera garrantzitsuak planifikatuko dira**, non gutxienez urteko jarraipena eta amaierako beste bat bilduko den Egitasmoaren indarraldia amaitutakoan.



7. I. ERANSKINA. ILDO ESTRATEGIKOEN, HELBURUEN ETA JARDUKETEN LABURPEN -TAULA

AALBORG KONPROMISOAK	ILDO ESTRATEGIKOAK	HELBURUAK	JARDUKETAK
<p>1. GOBERNANTZA MODUAK</p>	<p>1.1. Lankidetzeta eta koordinazio instituzionala bultzatzea hainbat mailatan</p>	<p>1.1.1. Koordinazioko politikak bultzatzea Bizkaiko Foru Aldundiko sailen artean.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Iraunkortasun eragilearen izaera aintzatestea, horien eginkizuna onartuz eta kontzeptu hori barnean eta kanpoan ezagutaraziz. • Iraunkortasun eragileen batzarren programa onestea eta burutzea. • Iraunkortasun eragileen foru birtuala sortzea Bizkaia 21 atarian, informazioa, trebakuntza eta komunikazioa emateko. • Bizkaia 21 Egitasmoa (2011-2016) jarraitzeko eta ebaluatzeko programa bat egitea eta onestea.
		<p>1.1.2. Zeharkakotasuna sartzea foru politiken indarra eta koherentzia hobetuko dituen antolakuntzako elementu gisa.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Foru Politikak Koordinatzeko Batzordearen sorrera bultzatzea. • Politikak zehazterakoan, zeharkakotasunerako tresnen eta metodologiaren inguruko aholkuak ematea Aldundiko pertsonalari. • Sailen arteko lan-taldeak eta jardunaldiak egitea erlazionaturiko programak eta ekintzak koordinatzeko. • Onetsi eta abiaraztea zeharkako jarduerak gazteen arloan Gaztedi-Bizkaia Proiektuan 2011-2015. • Gaztedi Foru Batzordeak gazteria arloan foru jarduketaren programazioa eta ebaluazioa egitea eta onestea, Gaztedi-Bizkaia Proiektuaren 2011-2015 baitan.
		<p>1.1.3. Koordinazio eta lankidetzeta instituzionala hobetzea Bizkaiko Lurralde Historikoan bertan, baita Bizkaitik kanpoko administrazioekin eta organoekin ere.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Foru partaidetza sustatzea hainbat administrazioetako Gobernu Organoetan (Eusko Jaurlaritza, EUDEL, URA, Emakunde, Bizkaiko Garraio Partzuergoa, Ur Partzuergoak, etab.). • Topaketa koordinatuak sustatzea EUDELekin, aplikazio arloen arabera. • Aholkuak ematea udalerriei eta udalerrien itunak koordinatzea foru sail bakoitzaren eremuetan. • Tresna eta aplikazio informatiko komunak edo bateragarrien erabilera sustatzea hainbat erakundek parte hartzen duten programetan. • Eskuliburuak, gidak edota legeria sortzea eta argitaratzea, administrazioetan jarduketa prozedurak normalizatzeko.

AALBORG KONPROMISOAK	ILDO ESTRATEGIKOAK	HELBURUAK	JARDUKETAK
1. GOBERNANTZA MODUAK	1.2. Zerbitzu publikoen sistema iraunkorra finkatzea	1.2.1. Zerbitzu publikoak eta baliabideak koordinatzeko, mankomunatzeko edo zati bat partzuergoetan biltzeko prozesua sustatzea, sistema iraunkorra bultzatuz.	<ul style="list-style-type: none"> Zerbitzu mankomunatuaren prestazioa sustatzea eta aholkuak ematea gizarte, kultura, ekonomia, turismo, gazteria, etab. eremuetan. Udalerri guztiak Bilbao-Bizkaia Partzuergoan sartzea sustatzea. Lurralde mailako Hiriko Hondakinen Partzuergoa sortzea sustatzea. Mankomunitateen sorrera sustatzea hiriko hondakinak biltzeko.
		1.2.2. Herritarrentzako arreta hobetzea, desberdintasunak galaraziko dituen prestazio eta zerbitzu sistema eraginkor, irisgarri eta ulergarriarekin, betiere erabiltzailearengana zuzenduta Zuzentasuna eta iraunkortasuna.	<ul style="list-style-type: none"> Web zerbitzuen garapenaren aldeko apustua egitea administrazio kudeaketetarako. Herritarrentzako Ingurumen Informazio Sistema hobetzea.
	1.3. Gobernantza hobetzea	1.3.1. Herritarren eta gizarte eta ekonomiako erakundearen partaidetza aktiboa erraztea erabakiak hartzeko prozesuan.	<ul style="list-style-type: none"> Herritarrek erabakiak hartzeko prozesuan parte hartzeko eredia zehaztea. Herritarrek BFaren politiketan parte hartzeko bideak sortzea, jendaurreko informaziotik harago (mahai sektorialak, Gaztedi Foroa, etab.).
		1.3.2. Herri Administrazioen kudeaketaren gardentasuna indartzea.	<ul style="list-style-type: none"> Informaziorako bide publikoak sortzea (web orria, etab.) Administrazioak.
2. IRAUNKORTASUNERAKO KUDEAKETA	2.1. Iraunkortasunean oinarrituriko aurrerapena garatzea	2.1.1. Hazkunde ekonomikoa eta ingurumen eta gizarte kostuak banantzea.	<ul style="list-style-type: none"> Bizkaiko Batzar Nagusiek eta Bizkaiko Foru Aldundiak Europako eta nazioarteko ekimenekin gehiago bat egitea, iraunkortasun politikak finkatzea ahalbidetzeko. Bizkaia 21 Egitasmoari, Tokiko Agenda 21i eta Aalborg+10 Konpromisoei buruzko trebakuntza kanpainak egitea, foru administrazio langileentzat nahiz udal eta udalaz gaindiko entitateko langileentzat.

AALBORG KONPROMISOAK	ILDO ESTRATEGIKOAK	HELBURUAK	JARDUKETAK
<p>2. IRAUNKORTASUNERAKO KUDEAKETA</p>	<p>2.1. Iraunkortasunean oinarrituriko aurrerapena garatzea</p>	<p>2.1.1. Hazkunde ekonomikoa eta ingurumen eta gizarte kostuak banantzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Iraunkortasun kontzeptua Bizkaiko enpresa sarean ezagutaraztea. • Gizarte kohesioan oinarrituriko hazkunde ekonomikoa zabaltzea eta finkatzea eta ingurumena foru sail guztien artean koordinatuta babestea.
		<p>2.2.1. Iraunkortasun adierazleak erabiltzea iraunkortasunerako bidea ikuskatzeko eta ebaluatzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Bizkaiko Iraunkortasun Adierazleen Sistema mantentzea eta eguneratzea. • Urtero kalkulatzea Bizkaiko Giza Garapenaren Indizea eta horren bilakaera aztertzea. • Bizkaiko iraunkortasun adierazleen, aztarna ekologikoaren eta Giza Garapenaren Indizearen emaitzak Bizkaiko Administrazioetan ezagutaraztea. • Foru planek eta programek Aalborg+10 Konpromisoak betetzeko eginiko ekarpena ebaluatzea.
	<p>2.2. Iraunkortasuna Bizkaiko Lurralde Historikoko administrazioetan txertatzea</p>	<p>2.2.2. Udalerrietako Tokiko Agenda 21en Tokiko Ekintza Planak (PAL) kudeatzen laguntzea orientazioaren eta laguntzaren bidez.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Iraunkortasunaren arloko udal proiektuak finantzatzea. • Iraunkortasun-irizpideak sortzea diru-laguntzak ematean baloratuak izan daitezten.
		<p>2.2.3. Administrazioek Europako Hiri eta Herri Iraunkorren Kanpainarekin kooperatzea sustatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Bizkaiko udalerriek Europako ekimenekin eta proiektuekin bat egitea sustatzea, politika iraunkorrak sartze aldera. • Bizkaiko Foru Aldundiak Europako Hiri eta Herri Iraunkorren Kanpainaren proiektuetan eta ekimenetan parte hartzea. • Udalak eta udalaz gaindiko entitateak ICLEIn sartzea sustatzea eta bultzatzea. • ICLEIren barruko Bizkaiko udalerrien arteko topaketak antolatzea. • Europako Hiri eta Herri Iraunkorren Kanpainari buruzko informazioa argitaratzea Udalnet eta Bizkaia 21 atarian.
<p>2.3. Iraunkortasuna Bizkaiko hezkuntzaren sektorean txertatzea</p>	<p>2.3.1. Eskolako Agenda 21 indartzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Komunikabidea ezartzea eta baterako lan ildoak sustatzea Ingurugela Bizkaiarekin. 	

AALBORG KONPROMISOAK	ILDO ESTRATEGIKOAK	HELBURUAK	JARDUKETAK
<p>2. IRAUNKORTASUNERAKO KUDEAKETA</p>	<p>2.3. Iraunkortasuna Bizkaiko hezkuntzaren sektorean txertatzea</p>	<p>2.3.1. Eskolako Agenda 21 indartzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Bizkaia 21 web ataria sortzea. • Material didaktikoak sartzea Bizkaia 21 atarian.
		<p>2.3.2. Iraunkortasunaren arloko esperientzien trukaketa sustatzea hezkuntzaren sektorean.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Bizkaiko ikastetxeetan topaketa iraunkorren antolakuntzan laguntzea. • Guneak sortzea Bizkaia 21 atarian eskolako esperientzia iraunkorrak erakusteko. • Lankidetzak hitzarmenak ezartzea, hezkuntzaren sektoreko iraunkortasun teknikariak trebatzeko.
		<p>2.3.3. Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasunean Oinarritutako Hezkuntzarako Ekintza Egitasmoa (PAES) eguneratzea, zabaltzea eta aplikazioa sustatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasunean Oinarritutako Hezkuntzarako Ekintza Egitasmoa eguneratzea, Bizkaia 21 Egitasmo berriaren (2011-2016) eta iraunkortasunarekin lotutako beste plan edo programa batzuekin bat etorriz. • Iraunkortasunean Oinarritutako Hezkuntzarako Ekintza Egitasmoa ezagutaraztea Bizkaiko Foru Aldundiko eta Bizkaiko hezkuntzaren sektoreko langileen artean.
	<p>2.4. Gizartean oro har barneratzea iraunkortasuna</p>	<p>2.4.1. Herritarrak garapen iraunkorrean parte hartzearen garrantziaz jabeatzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Herritarrek iraunkortasunean parte hartzeko kanpainak egitea.
		<p>2.4.2. Irigarritasuna sustatzea eta iraunkortasun prozesuei buruzko informazioa ezagutaraztea planak burutzeko emaitzak, iraunkortasun adierazleak, etab.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Bizkaia 21 ataria etengabe eguneratzea. • Bizkaiko Foru Aldundiaren iraunkortasun adierazleak jendaurrean ezagutaraztea. • Egungo foru instalazioei buruzko informazio kanpainak egitea zabalkunderako eta herritarren ezagutza gisa.
	<p>2.5. Garapen iraunkorra errazten duen zerga eredu bat sustatzea</p>	<p>2.5.1. Ingurumen zerga-erreformari buruzko lan-eremuaren sorrera bultzatzea hiru aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren artean.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ingurumen zerga-erreforma aztertu eta bultzatuko duen lan batzorde bat sortzea proposatzea Euskadiko Zergak Koordinatzeko Organoari. • Europa mailan eta ingurumenaren arloan abiarazitako zerga-erreformen azterlan konparatua egitea proposatzea aurreko lan batzordearen baitan.

AALBORG KONPROMISOAK	ILDO ESTRATEGIKOAK	HELBURUAK	JARDUKETAK
<p>2. IRAUNKORTASUNERAKO KUDEAKETA</p>	<p>2.5. Garapen iraunkorra errazten duen zerga eredu bat sustatzea</p>	<p>2.5.2. Ingurumen fiskalitatearen onurak interesatu guztiei ezagutaraztea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Interesatuei informazio kanpainak egitea. • Ogasunaren web orrian argitaraztea ingurumen fiskalitatearen onurak.
		<p>2.5.3. Zerga iruzurra desagerraraztea, kargen banaketan ekitate eta gizarte justizia handiagoa lortzeko.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Zergetan eragina duen informazioa lortzeko, normalizatzeko eta aztertzeko jarduketak egitea, zergak aplikatzeko prozeduren xedeko zergapekoen aukeraketa hobetzeko nahiz horien gainean eginiko prozedurak burutzea bera. • Zergapekoen iruzurrezko jarduketak detektatzeko eta galarazteko prebentzio jarduketak egitea, baita zerga zorraren kobrantza bermatzeko kautelazko neurriak hartzea ere. • Zerga zorrak erregularizatzeko eta kobratzeko jarduketak egitea, eta arlo horretan, arreta berezia jarriko da Ogasun eta Finantza Saileko Iruzurraren kontrako Batzordeak erabakitako jokabideetan edo sektore ekonomikoetan.
<p>3. NATUR ONDASUN KOMUNAK</p>	<p>3.1. Bizkaiko ingurune naturalaren ahalmena zaintzea eta hobetzea</p>	<p>3.1.1. Biodibertsitatea babestea, arriskuan dauden espezieetan arreta berezia jarrita, eta espezie inbaditzaileen prebentzioa eta desagerraraztea sustatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Babesturiko espezieak kudeatzeko planak egitea eta horien garapena bultzatzea. • Bizkaian espezie inbaditzaileak desagerrarazteko eginiko planak koordinatzea. • Babesturiko espezieak mantentzeko jarduketak egitea eta biodibertsiterako arriskuak murriztea (aisialdi jardun okerrak, etab.) zabalaldietan. • Espezie eta arraza autoktonoak babesteko jarduketak sustatzea eta bultzatzea.
		<p>3.1.2. Ekosistemak babestea, enplegua sortzearen eta gizarte-ekonomiako garapenaren arloko azpiegitura berdeak bultzatuz.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Geodibertsitatea Bizkaiko Foru Aldundiaren jarduketetan sartzea. • Bizkaiko Milurtekoaren Ekosistemak Ebaluatzeko ikerketa proiektua bultzatzea. • Bizkaiko giza ongizaterako Ekosistemen Zerbitzuen Katalogoa egitea (hornidura, erregulazioa eta kulturakoak). • Bizkaiko Soinu Naturalaren Erreserbei buruzko jarduketak burutzea.

AALBORG KONPROMISOAK	ILDO ESTRATEGIKOAK	HELBURUAK	JARDUKETAK
<p>3. NATUR ONDASUN KOMUNAK</p>	<p>3.1. Bizkaiko ingurune naturalaren ahalmena zaintzea eta hobetzea</p>	<p>3.1.3. Biodibertsitate, geodibertsitate, paisaia eta, oro har, Bizkaian dauden ekosistemen ezagutza eta onarpena hobetzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Bizkaiko biodibertsitateari, geodibertsitateari, paisaiari eta ekosistemei buruzko informazio kanpainak egitea. • Natur ondareari eta paisaiari buruzko jarduketa berriak sartzea Bizkaiko Foru Aldundiaren Iraunkortasunean Oinarritutako Hezkuntzarako Ekintza Egitasmoan. • Bizkaiko natur ondareari eta paisaiari buruzko informazioa sartzea Bizkaia 21 atarian.
		<p>3.1.4. Azpiegiturek dakarten ingurumen-eragina murriztea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Ingurumenarekiko sentsibilizazioa bultzatzea azpiegiturak sortzen dituzten taldeen eta horiek eraikitzen dituztenen artean (azpiegiturak ingurumen irizpideekin sortu eta eraikitzeko ikastaroak). • Ingurumen-eraginaren ebaluazioaren menpe jartzea lurraldean, ingurumenean eta pertsonen osasunean eragin zuzena duten Bizkaiko Foru Aldundiaren plan, egitasmo eta proiektu guztietan. • Ingurumen organo gisa parte hartzea ingurumen-eraginaren ebaluazioaren menpeko proiektuen zuzenketa neurriak jarraitzeko lanetan. • Eragin handi itzulezinetarako eta konponezinetarako sortutako konpentsazio neurriak planteatzeko irizpideak ezartzea: horien gainean ezin aplika daitezke zuzenketa edo babes neurriak. • Konpentsazio neurrien proiektuen eraginkortasun maila jarraitzea. • Bioingeniaritza teknikak lehenestea esku hartzeko guneen tratamenduan. • Ebaketako ezponden azalerako egonkortzea ekiditea hormigoi proiektzioaren edo gunitatuaren bidez, behar bezala frogaturiko salbuespenezko egoeretan izan ezik. Gunita erabili beharreko salbuespenezko kasuetan, paisaia integratzeko beharrezko lanak burutuko dira, horien akabera inguruko lurrarekin bat etor dadin.
		<p>3.1.5. Lurraren erabilera aldaketa eta okupazioa gutxitzea eta optimizatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Hiri lurren berrerabilpena lehenestea bestelako lur moten aurrean. • Landa lurren birkalifikazioa murriztea guna urbanizagai bihurtzeko.

AALBORG KONPROMISOAK	ILDO ESTRATEGIKOAK	HELBURUAK	JARDUKETAK
<p>3. NATUR ONDASUN KOMUNAK</p>	<p>3.1. Bizkaiko ingurune naturalaren ahalmena zaintzea eta hobetzea</p>	<p>3.1.5. Lurraren erabilera aldaketa eta okupazioa gutxitzea eta optimizatzea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Plan, programa eta proiektuen ingurumen-eraginaren azterlanen edukian eta norainokoan hobekuntzak egitea, paisaiaren babesaren kontzeptua sartuta. • Egungo biztanle-guneetatik banatutako hirigintza garapen berriak saihestea, zaharkituriko hiri eremuak birsortuz eta egungo hiri bizilekuen arteko bilbeak osatuz. • Sailen arteko batzordeak sortzea, lurraldean eragina duten sailen ekimenak eztabaidatzeko, zertarako-eta elkarren artean eta lurraldeko beste antolamendu tresnen ingurumen jarraibideekin eta EAEko eta BLHko ingurumen konpromisoekin zein neurritaraino bateragarriak diren ikusteko.
		<p>3.1.6. Balio agrologiko handiko lurak babestea.</p>	<ul style="list-style-type: none"> • Nekazaritza-basogintzako Lurralde Plan Sektorialaren onespena bultzatzea. • Balio agrologiko handiko lurak Lurren Bankuan sartzeko sustatzen duten politikak bultzatzea. • Balio agrologiko handiko lurren forestazioa edo beste erabilera batzuetarako birkalifikazioa galaraztea.
